

A EREDUKO JARDUNALDIAK  
(2003ko maiatza)

# A Ereduko Jardunaldiak

(2003ko maiatza)



**Nafarroako Gobernua**  
Hezkuntza Departamentua

Izenburua: A Ereduko Jardunaldiak (2003ko maiatza)  
Koordinatzailea: Eduardo Aldasoro  
Azala: Asís Bastida  
Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.  
Fotokonposizioa: PRETEXTO. Estafeta, 60 - 31001 Iruña  
Inprimatzailea: Graphycems  
Lege gordailua: NA 2.672-2003  
I.S.B.N.: 84-235-2449-3

© NAFARROAKO GOBERNUA. Hezkuntza Departamentua

---

Sustatzailea eta banatzailea: Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa  
Toki Administrazioako Departamentua  
Navas de Tolosa k., 21  
Telefonoa: (848) 42 71 21  
Faxa: 848 42 71 23  
31002 Iruña  
Posta elektronikoa: publi01@cfnavarra.es  
www.cfnavarra.es

## AURKEZPENA

2003ko maiatzaren 8an eta 9an, Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan, “A ereduko euskararen irakaskuntzarako jardunaldiak” burutu ziren. Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 155 irakaslek parte hartu zuten jardunaldi horietan.

Argitalpen honek ondokoa dakar: espezialistek azaldutako txostenak, irakasle taldeek aurkeztutako hezkuntza esperientziak, lan taldeen ekarpenak (parte-hartzaileak, mailaren eta sarearen arabera, lan-taldeka banatu ziren) eta, azkenik, lan talde horiek arloaren didaktika hobetzeko, jardunaldietatik atera zituzten ondorioak.

Jardunaldien helburuak ondoko hauek ziren:

- A ereduko euskara irakasleen arteko harremanak antolatzea.
- Programazioak (helburuak, metodologia, proiektuak...) aztertzea eta sakontzea.
- Irakasleek sortutako edota erabilitako material didaktikoa ezagutzea eta trukitzea.

Honen ildotik, aipatu beharra dago legegintzaldiaren hasieran programa bati ekin zitzaioela, Nafarroako Bigarren Hezkuntzako institutuak eta Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala euskararen irakaskuntzan elkarrekintzan aritzeko. Bi erakunde horietako irakasleak etengabeko harremanetan arituko dira, eta hortik etorriko da, euskararen kasuan bezala, gainerako hizkuntzetan ere, bilatzen den helburua lortu ahal izatea, hots, ahalik eta ikasle gehienek komunikazio maila kontrastatuak erdietsi ahal izatea, eta era berean, entitate eskudun batek maila horiek gainditu direla egiaztatzea.

Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak arlo bakoitzeko irakasleen arteko lan jardunaldiak erregulariki antolatzen ditu, curriculumaren gaineko gogoeta egiteko eta irakaslana hobetzen laguntzeko.

Pozgarria izan da A ereduko hainbeste irakaslek jardunaldi hauetan parte hartu izana, baita programatutako jardueretan erakutsi duten parte-hartze aktiboa ere.

Jardunaldien xedeak bete egin ziren, eta gisa berean jardunaldi horiek baliagarriak izan ziren irakasleek, teknikariek eta profesionalek A Ereduko euskararen irakaskuntzaren ezaugarriak mahai gainean jartzeko, eta jardunaldietatik ondorioak ateratzeko, beti ere irakaskuntzaren kalitatea hobetzeari begira.

Jardunaldien materialak eta ondorioak zabaltzeak adierazten du Administrazioak konpromisoa hartua duela aipaturiko hobekuntzak sartzeko bidean.

D. Luis Campoy Zueco  
*Hezkuntza Kontseilaria*

## AURKIBIDEA

### HITZALDIAK

À EREDUAREN BILAKAERA ETA EZAUGARRIAK .....	13
<i>Eduardo Aldasoro Lezea</i>	
HAUR HEZKUNTZAREN ETA LEHEN HEZKUNTZAREN PROGRAMA ETA METODOLOGIA	17
<i>Biotza Piko Gabantxo</i>	
BIGARREN HEZKUNTZAKO PROGRAMAZIOA ETA METODOLOGIA .....	25
<i>Jokin Larrañaga Larrañaga</i>	
NUHEOKO PROGRAMAZIOA, MATERIALAK ETA EMAITZAK .....	41
<i>Garbiñe Urreizti Lezertua / Pello Mateos Yeste</i>	
À EREDURAKO INFORMATIKA APLIKAZIOAK .....	55
<i>Josu Jiménez Maia</i>	
HELDUEN IRAKASKUNTZAKO MATERIALEN APLIKAZIOAK À EREDUAN .....	61
<i>Sagrario Crespo Zulet</i>	

### KOMUNIKAZIOAK

PANPINERAKO JANTZIAK .....	77
<i>Begoña Mitxeo / Feli Aleman / Mainer Ikarán / Mikel Olaizola</i>	
ANTZINAKO TRESNERIA .....	81
<i>Maria Mendazona / Maite Garcia / Iratxe Anton</i>	

ZUHAITZEN FITXATEGIA .....	85
<i>Ramiro Lauzirika / Imanol Iturrioz / Luis Lizarribar / Mikel Sobrino / Idoia Hernandorena</i>	
GRAFFITIA .....	89
<i>Susana Lasarte / Cristina Eraso / Unai Albira / Luis El Cid</i>	
LURRALDE EZBERDINETAKO JATEKO OHITURAK .....	91
<i>Koro Aleman / Blanca Llorens / Amaia Irazusta / Iratxe Izura</i>	

### ONDORIOAK

LAN TALDEEN GIDOIAK .....	99
JARDUNALDIEN ONDORIOAK .....	103

### ERANSKINAK

ERAKUSKETA .....	107
JARDUNALDIEN PROGRAMA .....	111
JARDUNALDIEN BALORAZIOA .....	113

Hitzaldiak



# A EREDUAREN BILAKAERA ETA EZAUGARRIAK

*Eduardo ALDASORO LEZEA*

Euskara Zerbitzuko teknikaria

## 1. Legea onartu arteko garaia

Euskararen irakaskuntza, euskara irakasgai gisara hartuta, 1974-75 ikasturtean abiatu zen sare publikoan, gurasoen eskaerari erantzunez eta Hezkuntza eta Zientziako Ministerioak sorterri-hizkuntzen irakaskuntza irakastorduetan sartzeko emandako 1433/1975 Dekretuak oinarritzat hartuta. Irakaskuntza hau Nafarroako ipar-mendebaleko herrietan zabaldu zen, Leitzan, Betelun, Lekunberrin eta halakoetan. Herri horietan laster sartu ziren beste ikasgai batzuk euskaraz. Sasoi berean, Iruñerriko ikastetxe batzuk, Antsoaingoak esaterako, euskararen irakaskuntza, irakasgai gisara aukeratu zuten. Bigarren Hezkuntzan, Lanbide Heziketako ikastetxe batzuetan eta Irubide Institutuan hasi ziren euskara irakasgai gisara irakasten, eta laster beste irakasgai batzuk ere euskaraz ematen hasi ziren.

Hasierako garai haietan oso modu ezberdinetan irakasten zen euskara: arautu gabe zegoen Nafarroako legedian, ordutegiak ere ez zeuden finkaturik, metodologia oso gramatika zalea zen, materialak helduen irakaskuntzatik hartzen ziren maiz... Irakasleen lan pertsonala zen irakaskuntzaren zutoina, ezen prestakuntza ere oso urria eta puntuala baitzen.

## 2. Legea onartu ondoren

Euskararen Legea onetsi ondoren (1986an), 159/1988 Foru Dekretuaren bidez hizkuntza ereduak finkatu ziren (euskara irakasgai gisara eskaintzen

zuenari A eredia izendatu zitzaion), eta, horren ondorengo Foru Aginduetan finkatu ziren, modu ofizialean, curriculuma, ordutegia, eskaera baldintzak eta abar.

Garai horretan, A eredia bi motatako ikastetxeetan garatu zen: eskualde misto eta ez euskalduneko ikastetxe publikoetan –esaterako, hezkuntza-eredia osatze aldera euskarazko irakaskuntza sartu zenean, Burlatan edo Atarrabian kasu, haietan Hiruherri ikastola integratu eta gero, baita euskara irakastorduetatik at eskaintzen zutenetan ere, hala nola, San Juan de la Cadena ikastetxean, Ermitagaña institutuan, Cortesen, Obanosen...– eta eskualde mistoko ikastetxe konfesionaletan, adibidez, Ntra. Sra. de la Compasión-en, Sto Tomás-en, Larraonan...

Gurasoek aukeratzen dute eredia (hautazkoa da). Aukera borondatezkoa da, eta horrek badu berebiziko balioa, zeren, gurasoen motibazioa faktore garrantzitsua izaten baita, ikasleen ikasketa prozesuan. Bestaldetik horrek hainbat arazo eman zituen eta ematen ditu taldeen osieran: aukera egiten duten eta egiten ez dutenek ikasgela berean egoteak, maila ezberdinetakoak ikastordu berean, ikasle kopuru handiko taldeak... eta abar.

Formazioa modu sistematikoagoan hasi zen. Alde batetik irakaskuntza erakargarria egin nahi genuen eta horretarako hainbat ikastaro egin genituen Imanol Urbietan (musika eta psikomotrizitatea erakutsi zigun) eta Enkarni Genuarekin (txontxongiloen bitartez euskara irakasteko). Bestetik, lan taldeak egin genituen eremuka eta horietan, interesguneetan oinarritutako gai globalizatuak prestatu genituen: etxea, jantziak, inauteriak, udazkena...

Materialen dotazioak ere egin ziren, nahiz eta kasu batzuetan, ikastetxeak dirua euskararako baino beste erabilpen batzuetarako gorde; edo urte batetik bestera irakaslea aldatzearekin batera erositako material horretatik ikastetxean deus ez gelditu.

Orduan hasi ziren ere, ikastetxeetan, Xole Erbitik kudeatzen dituen emaldiak ordu osagarrietan.

### 3. Hezkuntza Erreformaren ondoren

Hezkuntza Erreforma jarri zen garaian A ereduko matrikulak gora egin zuen nabarmen.

Gaur egun, 200dik gora irakaslek ematen dituzte eskolak eredian. A ereduko irakaslearen profila hauxe da: emakumezkoa da, behin-behinekoa, espezialista, eta lehen hezkuntzan irakasten du.

Denboraren poderioz ikusi ahal izan dugu A eredu hautazkoa izateak baduela bere desabantaila, eta hori, etapa batetik bestera, ereduz aldatzeko aukera da. Gaur egun, maiz ikusten dugu lehenengo hezkuntzatik bigarrenera pasatzean ikasle askok uzten dutela A eredu. Arrazoiak ezberdinak izan daitezke, edo, agian, ondokoetako bat baino gehiago, batera: motibaziorik eza, aurrerapen eskasaren aurrean, hautazko beste irakasgaiak hartu nahia, A ereduan jarraipen argirik ez ikustea, selektibitatearen beldur egotea...

Prestakuntza gauzatzen eta osatzen joan da, hala hizkuntzari dagokionez (gaurkotze eta itzulpengintza ikastaroak, kasu) nola didaktikaren esparruan (euskaraz jolasteko liburua sortu genuen Enkarni Genuarekin, sekuentziazio nozio-funtzionala bultzatu zuen Iñaki Biainek, tailerrak eta proiektuak landu ditugu Biotza Pikorekin...

Horretaz aparte programa berri batzuk ere sortu dira: udaleku eta kanpaldiak; materialak (liburuak, Cd-romak...) eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntz Eskola Ofizialaren lankidetzeta programa.

#### 4. Etorkizuna eta erronkak

Batetik, gurasoek egin duten eredu honen aldeko aukera, zaindu egin behar dugu, aurrez aurre ditugun erronka berriei begira: kalitate legea, ingelesaren pisua curriculumean, hizkuntzen arteko uztarketa eta ezagupenen transmisioa...

Asko da egin duguna eta asko ere egin beharko duguna.

Hasteko, A ereduko helburua finkatu behar dugu. Batzutan ezkorregiak gara, hutsean (A ereduan ez da deus lortzen) edo hamarrean (A ereduak umeak euskaldundu beharko lituzke) gure helmuga jarri baitugu.

A ereduaren helburua lehenengo eta oinarrizkoena pertsonen arteko komunikaziorako trebeziak garatzea da (Basic Interpersonal Communicative Skills-BICS).

Eta zer dira pertsonen arteko komunikaziorako trebezia horiek? Pertsonen arteko harremanetarako *erregistro formal eta ezformal praktikoak, tresna eta komunikabide sozialen erabilpena eta kulturaren transmisioa zein literaturaren ezagupen funtzionala*. Horrek ez du esan nahi ezin ditugula eduki akademiakoak erabili. Hizkuntza bat, kasu honetan, euskara, erabiltzean ikasten dugu, eta horretarako gaztelaniaz lantzen diren edukiak aprobetxatu ahal ditugu, euskararen oinarrizko ezagupena zabaltzeko.

Jakina, helburu hori ezberdina izango da ikasleak gaztelaniazkoak edo euskaldunak direnaren arabera: Ikasle euskaldunekin ezagupen akademikoa sakonago ere landu ahal dugu. Beraz, kontuan hartu beharko dugu ikasleek alde zuzenetik dakitena eta haien inguruan euskara erabiltzeko dituzten aukerak.

Dena den, badira, ildo honi jarraituz, zenbait gauza kontuan hartzeko modukoak: lantzen ditugun eduki, prozedura eta jarrerak *komunikatiboak* izan behar dute (euskararen gramatika ezagutzeak ez baitu bermatzen komunikazioa).

Jardunaldi hauetan euskara irakasgaiaren irakaskuntza hartuko dugu ardatz: zer den eta nola izan behar duen irakaskuntza prozesuak, eta, profesionalak garen aldetik, zein den gure zeregin teknikoak. Horretarako gonbidatu ditugu hainbat aditu bere esperientzia ezagutzeko, eta lan taldeetan aztertu ahal ditugu aspektu tekniko hauek guztiak.

Eranskina.  
**Datuak**

* A ereduko bilakaera: 1988/1989ko ikasturtetik 2002/2003kora doan aldia hartuko dugu kontuan (Haur eta Lehen Hezkuntza):								
	88/89	90/91	92/93	94/95	96/97	98/99	00/01	02/03
A eredia	5,5	7,6	9,6	11,5	17,2	22,5	26,7	28,1

* Bilakaera eskualdeka:			
	E. Euskalduna	E. Misto	E. Ez
A eredia	%15	%22	%35

* Banaketa etapaka:				
	Haur H.	Lehen H.	DBH	Batx.
A eredia	%28,67	%27,73	%10,57	%3,83

\* Sareak eta ikasle kopuru osoak kontuan hartuta esan daiteke irakasgai gisa duten ikasleen % 80,62k ikastetxe publikoetan ikasten dutela eta %19,38k ikastetxe pribatuetan.

# HAUR HEZKUNTZAREN ETA LEHEN HEZKUNTZAREN PROGRAMA ETA METODOLOGIA

*Biotza PIKO GABANTXO*

Euskara Teknikaria

## 1. Sarrera

Nire lehenengo asmoa teoriaren azalpena ematea zen, baina hori hitzaldi diferenteetan agertu behar dela ikusita, unitate didaktiko bat prestatzeko egin ahal diren ariketa motetan zentratuko naiz.

Nire orain arteko lan jarduerak, A ereduko irakasle izateak eta aholkulari lanetan ibili izanak abadagunea eskaini dit A ereduko euskara hizkuntza irakasteko metodoetan trebatzeko.

Izan dugun bilakaera labur-labur azaltzera noakizue. Gu lanean hasi ginenean, Euskararen Legea argitaratu berri zen. Euskara Zerbitzuak euskara emateko programaketak kaleratu zituen, eta programaketa horietan gehienbat gramatika lantzen zen, hizkuntza arau moduan hartuz eta aditza, deklinabidea, hiztegia, etab. lantzen genituen. Metodologia guztiz gramatikala zen eta ulermenerako zein ekoizpenerako ariketetan oinarritutakoa. Hiruzpalau urte pasatu ondoren, konturatu ginen ikasleek ez zutela euskaraz hitz egiten ikasten, beren hizkuntza ikasketa guztia esaldietara mugatzen baitzen. Beraz, irakasleon helburuak ikasleek euskaraz hitz egitea zenez, egoera komunikatiboak lantzearen planteamentuari ekin genion. Garai horretan, bait baigenekien, Europa mailan bazela lantzen ari zen korrante komunikatiboa “atalase maila” deiturikoa. Hau ikusi ondoren, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan egoera komunikatibo horiek lantzen hasi ginen. Esaterako, umeak komunera joan nahi badu, ipuinaren bidez hainbat egoera sortuko ditugu umeak nahi hori modu funtzional eta praktikoan, behar diren nozioak erabiliz, adieraz dezan.

## 2. Metodologia nozio-funtzionala

Horrela, materialak sortzen hasi behar izan genuen hizkuntza funtzioetan zentratuz. Hauek izan ziren metodo komunikatiboaren barnean eman genituen lehenengo urratsak, gerora aldaketak tartekatzen joan baikinen. Eta sortu genituen unitateak zikloka mailakatu genituen. Adibidez, ikasleek dendari bati elkarrizketa egin behar diote. Elkarrizketa egiteko hainbat hizkuntza funtzio beteko dituzte (informazioa eskatzea, euren artean trukatzea), beste hainbat nozio landuko dituzte (janari edo produktuen izenak, prezioak, kantitateak) eta zenbait hizkuntza forma ere erabiliko dituzte (agurra, zenbat batio duen, zer nahi duten, gustatzen zaien ala ez). Horrelaxe sailkatu genituen mailaz maila unitateak. Sortutako unitateen eskema lau ataletan banatuta dago:

1. Benetan erreala zen egoera bat asmatzen genuen lehenengo mailarako. Egoera honetan, adibidez, medikuarengana goaz.
2. Azterketa medikua egiten da (lehendik gelan landu da medikuarekin izan beharreko elkarrizketa). Transposizio kontzeptua erabiliz, hau da, gelan landutakoa benetakoa egoeran errepikatuko dela pentsatuz.
3. Gelan planteatuko zen egoera berri hori aztertu egiten zen umeen ulermen maila ikusteko. Jokuen bidez, gramatikazko edukiak, esapi-deak eta informazioa landuz.
4. Eta azkenean, egoera berria sortu behar zutela esaten genien eta horri, materialen txanda deitzen genion; hau da, ikasleekin montaje guztia prestatu eta ume batek medikuaren papera egiten duen bitartean, besteek egoerari erabilgarritasuna emateko nozio eta funtzio guztiak errepikatzen dituzte gaixo paperean.

Arazoa zen egoera transposizio hori ez zela ematen eta orduan, materialak aldatzen hasi behar izan genuen. Haur hezkuntzako lehen ziklorako egindako materialak egoera oso zehatzak azaltzen zituzten, baina, bigarren zikloko eta goi zikloko materialak elkarrizketa testuak lantzen zituzten (elkarrizketa, narrazioa, deskribapena). Adibidez, bosgarren mailarako bidai baten deskribapena proposatu genien eta honetarako, egitaraua zehazten genuen: bederatziatan autobusa toki batean hartu; hamaiketan herri batera iritsi eta hori ikusi... Orduan, bidai gelan antolatzen bazen ere, programa egitean testu tipologia zehatz bat lantzen zuten, eta ikasturte bukaerako bidai egiteko testua eta programa, konturatu gabe, ikasten zuten.

### 3. Trasferentzia eta testua

Erreforma etortzearekin batera irakaskuntza-ikaskuntza esanguratsua, funtzionala planteatu zen, ikasleek hasieratik zer egin behar zuten jakin behar zutelarik. Nolabait gizartea eskolara hurbiltzea zen helburua.

Eta erreformarekin batera batera hizkuntzaren ikuspegi berri bat tartekatu zen, hizkuntzaren kontzeptu berri bat: ama hizkuntza eta bigarren hizkuntzaren transferentzia, hain zuzen ere. Honek esan nahi du lehen hizkuntzan dakizkigun hizkuntza kontzeptuak bigarren hizkuntzara, ikasi behar izan gabe, zuzenean transferitu egiten direla.

Hizkuntza erabiltzeko dela jakinda eta hizkuntza erabiltzen dugun heinean ikasten dugula ikusita, guk atera genuen ondorioa honako hau izan zen: ez badakite ezin izanen dute erabili, eta ez badute erabiltzen ez dute inoiz ikasiko. Honen ondorioz, hizkuntza ekintza komunikatiboan bidez ikastea erabaki genuen. Baina, ekintza bati ekin aitzinetik ikasleen aurrezagutzak neurtu egin behar dira. Berdin da gaztelaniaz erantzuten badute ere, horrela ikusiko baitugu hiztegi edo esapide aldetik euskaraz ikasi beharrekoa zer den, eta euren ulermen maila neurtzeko balioko digu.

Metodologiari dagokionez, elkarriketari eta komunikazioari ematen diogu lehentasuna, ez norbanako lanari. Honek esan nahi du irakaslearen papeira ere aldatu egiten dela, hau da, ez da irakaslea informazio guztia ematen duen bakarra, ikasleek ere autonomiaz jokatzen baitute eta komunikazioa neurri handi batean beren esku geratzen da. Hirugarren ziklotik aurrera, eta bigarren hezkuntzan bereziki, autonomia gehiago dute badakitelako zer nahi duten eta oso kontziente direlako noraino heldu nahi duten.

Ebaluazio kontzeptua ere guztiz aldatzen da erreformarekin eta hizkuntzaren irakaskuntza modu prozesualean burutzen da, hau da, prozesua da garrantzitsuena. Ebaluazioak hiru atal ditu: hasierako aurrezagutza, tarteko ekintzetan jasotzen dugun informazioa, eta azken ekoizpenean biltzen duguna. Ebaluazioan aldaketa hau gertatzen da komunikazio helburua komunikatzea delako eta gaitasun komunikatiboak neurtuko ditugulako.

Gaitasun komunikatiboak, besteren artean, azpiatal hauek ditu: batetik testua, diskurtsoaren ezaugarriak, hau da, antolaketan landu behar dena; bestetik, atal soziolinguistikoa, hizkuntza eta testua gizartera egokitzen dituen; hirugarrenik, hizkuntza kontzeptuak, gramatikarekin, lexikoarekin eta sintaxiarekin loturik dagoena; eta laugarrena, diskurtsoa sortzeko erabiliko ditugun estrategiak, ahoz zein idatziz. Beraz, testu tipologiari dagokionez, egoera komunikatiboetatik testura iragan gara, testua izanik gure lanerako ardatz.

Ikasleek benetan komunikatzen ikasiko dute, oharrak idazten, errezetak ematen, elkarrizketa bat egiten, ohar bat edo mezu bat bidaltzen, ... Laurak elkarrekin loturik landu behar dira, lau azpigaitasun hauek osatzen dutelako testua.

Bilakaera ikusiz gero, lehenik, hizkuntza gramatika hutsa balitz bezala lantzen zela ikusi dugu, gerora, nozio funtzioak landu izan ditugu, eta orain, testua da gure ardatza, testuaren elementuak testuan bakarrik baitute zentzua, testu bakoitzak funtzio bat bakarria duelako. Adibidez, nire helburua informazioa ematea baldin bada testu informatiboa erabiliko dut; nire helburua norbait konbentzitzea edo argudioak ematea baldin bada, argudiozko testua erabiliko dut; zerbait deskribatu nahi badut funtzioaren araberrako testu bat edo beste bat erabiliko dut.

#### 4. Proiektua

Prozesu hau jarraituz, ikasleek bukaerako ekoizpenean zentratuko dira. Bukaeran ekintza bat egin behar dute eta ekintza hori ahoz edo idatziz aurkeztuko dute. Azken ekoizpen honi azken xedea edo azken ekoizpena deitzen zaio. Lehen esan dugun bezala, gure helburua ez delako hizkuntza bera bakarrik irakastea, baizik eta hizkuntza tresna izatea arauak ikasteko, gai baten inguruan hitz egiteko, eduki batzuk lantzeko... edukiaren bidez hizkuntza ikasiz. Edukiak arloetakoak izan daitezke beti ere; hizkuntzak ekintza interesgarriak eginez ikasten baitira, berdin da lehen hizkuntza, bigarren hizkuntza edo hirugarren hizkuntza izan. Orduan, hizkuntza batean ekintza bat egin baldin badugu bigarren edo hirugarren hizkuntzan ekintza hori edukiari loturik landuko da. Adibidez, munduko herri indigenei buruzko album bat egitea planteatzen baldin badugu, sailkatutako txarteletan gramatikako hainbat eduki sartuko ditugu, baina baita ere ikasleekin erabiliko ditugun zenbait prozedura (irudia nola deitzen den, zerez egina dagoen, zein urtekoa den, eta zeren arabera sailkatzen dugun). Irakasle eta ikasle on artean erabakiko dugu txartela nolakoa izanen den. Eta konturatu orduko, ingurunekeo gai bat lantzen ari-tu gara euskarazko esapideak aldi berean jorratuz.

Proiektuan guk hainbat atal lantzen ditugu, alde batetik ikasleek burutu behar dutena hasieran erabakitzen dugu, hau da, produktua zein den eta zein testu motarekin lotuta joango den aurkezten diegu, ahoz edo idatziz. Kontuan izan behar dugu aurkezteko era ezberdinak daudela, idatzizko produktua baldin bada, aurkezpena idatzizko formula batean eramango dut gelara; eta ahozkoa baldin bada, ahoz azalduko dut. Honekin esan nahi dudana da



kontestua kontuan izatea ezinbestekoa dela, bestela informazioa galdu egin daiteke. Orduan, proiektu bat egiten dugunean ahalik eta errealean izan dadila saiaturiko gara informaziorik ez galtzeko.

Guk ez dugu ezer sortuko, beti ereduaren gainean arituko gara lanean; erreferentzia bat baino gehiago izatea komeni da. Orduan, txikiekin landu nahi duguna eredu bat plagiatuz, kopiatuz, berridatziz landuko dugu. Honekin esan nahi dudana da, ereduak eskaini egin behar ditugula, baina euskarazko ereduak D eredurako planteatutakoak direnez, A eredurako ulermenari dagokionez oso zailak dira. Orduan, haur hezkuntzarako ereduak nik sortu edo egokitzen ahal ditut, beti ere kontuan izanda ez dugula hizkuntza artifizial bat edo hizkuntza berri bat sortuko A eredurako. Esan dugun bezala, euskara bere testuinguru errealean azaltzen saiaturiko gatzazkie eta kontestu errealean ezin badiegu azaldu egokitu, laburtu, edo informazio hori nolabait eraldatu egingen dugu. Beste noizbait liburutegira joan eta materiala gaztelaniaz aurkitzen baldin badute ere, ez dago arazorik, lehenago aipatu dugun hizkuntza transferentziaren kontzeptua dela eta. Ikasleek informazioa ateratzeko, kopiatzeko edo plagiatzeko aukera izan behar dute eta euskarri hori erabiliz gai izanen dira euskaraz aritzeko.

Eta bestetik, hori guztia egin ondoren ariketa gramatikalak landuko ditugu ikasleek egin behar duten azken ekoizpen hori nolabait bideratzeko. Gogoratu ebaluazioa hasieran, erdian eta bukaeran landuko dugula, hau da, prozesu guztian dagoela. Honekin esan nahi dudana da, ikasleek azken helburua zein den badakitenez, prozesu guztian zehar egingo dutenari zentzua aurkituko diotela. Metodologia honetan prozedurazko edukiak sekulako garrantzia dauka. Metodologia honi metodologia prozesuala deitzen zaio, prozesuak baitauka garrantzia eta kontzeptuak eta edukiak prozeduren bidez landuko dira. Ezin ditugu A ereduaren jarrerak atzendu.

Orain oso modu orokorrean azaltzen ari naiz zer nolako garrantzia duen testuinguruak, baina gero egokitu egin behar da haur hezkuntzarako, lehen ziklorako, bigarrenerako edo hirugarrenerako.

## 5. Errezeta, txikienendako proiektua

Adibidez, bost urteko ikasleen gela batean testu mota bat landu nahian, errezetaren egitura aukeratu genuen. Honen bidez ume txikitxo hauek errezeta ipuin batetik bereizteko gai direnentz aztertu nahi genuen. Honetarako gelako liburu guztiak atera genituen eta errezetak zituzten liburuak alde batera uzteko eta beste liburu guztiak beste alde batean pilatzeko agindu ge-

nien. Umeek errezetak albo batera jartzen zituzten bitartean, bestaldean beste liburuak biltzen zituzten txukun txukun. Hau egiteko janari marrazkiez baliatu ziren. Beraz, testuak ezberdintzen zituzten.

Eta orain testu mota bakoitzak zer kohesio, zer koherentzia eta nola dagoen aurkeztuta azaltzea irakasleoi zegokigun. Produktuaren testua edo formatua, hizkuntza formak eta hizkuntza forma honen gramatika azaltzea zegokigun. Ariketa idatzizkoa izan beharrean ahozkoa balitz doinua, entonazioa, eta ahoskera azalduko genien jolas eta ariketen bidez, abestiak, errimak, etab. aurkeztuz. Prozedurari dagokionez, ikasleek dituzten ereduak aztertu, erkatu, datuak identifikatu, sailkatu, eta informatu eginen dira. Esaterako, konparaketa bati ekin baino lehenago nik estrategia batzuk landu behar ditut ikasleekin, eta informazioa eman behar diet prozeduraz den bezain batean, eurek ez dakitenaz informazioa izan dezaten.

Eta azkenean, ekoizpena heldu gara. Lehenagotik denon artean kontrol zerrenda bat prestatu dugu eta horrela, ikasleek bazekiten zein pauso eman eta zein hurrenkeran lan egin. Beraz, azken ekoizpena heldutakoan, kontrol zerrenda berriz aztertuz, gogoraraziko diegu zer nolako ekoizpena (antzezpena, idatziz erakusketa egitea, beste gelakideei zerbait kontatzea...) aurkeztu behar duten.

Honekin, oso era laburrean, haur hezkuntzan egin daitezkeen proiektuak azaldu nahi izan ditut. Ez ditut ikasle txikien ezaugarriak aipatu, baina azpimarratzeko modukoa da zenbat eta txikiagoak izan, orduan eta konzentrazio ahalmen gutxiago dutela, eta gelan proposatuko ditugun ekintzak anitzak eta ezberdinak izan behar dutela taldea ez aspertzeko. Gelak nolabaiteko funtzionamendua izateko, taldeka, talde txikika, eta txokoka antolatuko dugu. Eskema honek lehen eta bigarren zikloan balio dezake gelako dinamika errutina aspergarri ez bilakatzeko. Honekin esan nahi dudana da, hizkuntza eta ekintza aldatu beharra dagoela, egunero ez bada ere, astero.

Honetarako, estrategia ezberdin anitz erabiliko ditugu. Lehen hezkuntzan ingurunearekin lotuko dugu ipuina; ipuina baita haur hezkuntzan nabarmenki erabiltzen dugun testu mota eta oso baliagarria da modu erakargarrian, fantasia munduarekin lotuz, bigarren hizkuntza ikasteko.

## 6. Proiektua burutzeko pausoak

Ipuinaren inguruko proiektu bat izan daiteke liburuxkako pertsonajea deskribatzea edo ezaugarriren bat aldatzea. Ikastetxeak hainbat momentu ezin

hobe eskaintzen dizkigu ipuinarekin jolasteko, Olentzeroa izan daiteke horietako bat. Olentzerori eskutitz bat idatziko diogu, edo Olentzero egunean ipuin bat antzeztuko dugu...

Esan behar da proiektu barneko ekintzak manipulatioak izango direla, hau da, jolasak, errimak, eta azken mementuko amaierako agurra. Egoera bitxiak sortzeko formula hau ikaragarri gustatzen zaie haur hezkuntzako umeei, prozesua bukatzeko agurretako formulak era askotara egin baititzakete (abesti baten bidez agurtzea, biribilean esertzea...). Amaierako formula hauek haur hezkuntzan arrakasta handia dute, baina lehen hezkuntzan ez hainbeste.

Beraz, proiektua burutzeko lau atal daudela oso garbi gelditu da:

1. Irakaslearen xedea: nik unitate bat, proiektu bat egitea erabakitzen dudanean, pentsatutako guzti guztia pausoz pausoz idatzita utzi behar dut gelaratu aitzinetik.
2. Taldean erabakitako helburua: pentsatu dudana prozesua ikasleekin negoziatzen hasi baino lehenago, idatzita oso garbi izan behar dut zein den proposamen didaktikoa, nahiz eta jakin badakidan proposamen didaktikoak irakasleen artean oso gutxi erabiltzen direla eta ikasleek oso ongi dakitela zer egingo duten eta zertarako balioko duen.
3. Ekoizpenaren aurkezpena: normalean aurkezpena grabaketaren bidez, entzumenaren bidez egiten da; bideo gelan egonez gero, bideo grabaketaren bidez aurkeztea oso gauza polita da. Oso ongi etortzen da aurreko urteetatik gordetako ikasleen ekoizpenak gelako ikasleei aurkeztea eredu moduan. Beste aukera paperean aurkeztea da, eredia irudien bidez aurkeztea, alegia. Ikasleari zuzenean zer egin behar duen esan gabe, irakaslea oso kontziente izango da zein testu mota, zein formatotan eta zer gramatika irakatsi nahi dien. Beraz, zuzenean edukien lanketari ekinen zaio.
4. Ekoizpenaren lanketa: ume txikiek gidoi modura kontrol zerrenda erabiliko dute pausoz pauso proiektuari jarraitzeko. Landu duten guztia galderen bidezko eskeman jartzen dute eta erantzunak ere eskematizatu egiten dituzte; honela, eskema honen arabera, testuari forma ematen ikasi dute.

Hirugarren zikloan, aurkezpenari dagokionez, bada aipatu behar den aldaketa nabarmena. Ahozko zein idatzizko ulermena prozedura ezberdinen bidez lantzen da, hau da, ikasleei proiektua azaltzean prozedurak erakusten zaizkie. Honekin esan nahi dudana da, adibidez, indigenei buruzko albuma egin behar baldin badugu gelan, lehenagotik informazioa bilduko dut eta no-

labaiteko urrats batzuk zehaztuko ditut proiektua egiteko, ikasleek jakin behar dutelako zein pauso eman behar duten, eta proiektuko zein unetan gauden. Errutina bihurtzea irakasleontzat oso inportantea zela konturatu ginen, bai haur hezkuntzan eta baita lehen zikloan ere, errutinak maiz lantzen baziren ere, bigarren zikloan ia ez genuen errutinarik aurkitzen eta, noski, hirugarren zikloan ahozko-tasun une hori gelan guztiz ahaztuta zegoen. Ahozko-tasuna lantzeko era espontaneo hori, bideratua izan arren, berreskuratu nahi izan genuen. Honenbestez, irakasleak duen asmoa gelan azaldu ondoren, edukiak landuz ekoizpenerantz abiatuko gara.

Bukatzeko, oso garbi izan behar dugu proiektuaren lanketan, lan nekezena prozesua bera dela. Prozesua beti idatzi egin behar da, nahiz eta irakasleontzat aspergarri samar bihurtu eta maiz, denbora faltagatik ez egin. Baina, hortik abiatzen da proiektuaren arrakasta.

# BIGARREN HEZKUNTZAKO PROGRAMAZIOA ETA METODOLOGIA

*Jokin LARRAÑAGA LARRAÑAGA*

Euskara ikasgaiaren irakasle aritua

Benetan ez dakidala zer egiten dudan nik hemen, zuen aurrean. Ez ezazue pentsa, mesedez, zerbait berria eta miragarria entzun edo ikusiko duzue nik. Aipatu zidatenean jardunaldietara etortzeko aukera, onartu banuen gure bidea eta esperientzia aipatzeko izan zen batik bat. Gure esperientzia esan berri dut eta horrekin esan nahi izan dut nirekin batera beste irakasle batzuk ere egon direla bidexka hori urratzen, hau da, A ereduko ikastetxe batean 16 urtez etengabe lanean eta lekuz aldatu gabe. Orain azalduko dizuedana urte horietan ikusi, ikasi, frogatu, aldatu eta ondorioztatutako zenbait ideia dira, guretzat baliagarriak izan direnak.

Programazioa eta metodologiarekin hasi baino lehen, zenbait gogoeta egitea proposatu nahi dizuet:

Nork ikasi du orain arte A ereduan? Orain ikasten diharduen ikasle mota lehen ikasten zuenarekin erka daiteke? Duela urte batzuetako A ereduko ikasle horrek gaur egun ere A ereduan ikasiko al luke? Edo beste ereduren bat aukeratu luke? Erkidegoan garbi dago aldaketa hori eman dela, eman dela baina hemen Nafarroan ez dakit oraindik eman den. Gure eredu maitagarri honetan dagoen ikaslea, pozik al dago, edota nahiagoko luke besteren batean egon?

Zer lortu nahi dugu irakasle eta profesionalak garen aldetik ikasle haue-taz? Zein trebetasun jorratu nahi/behar dugu gehiago sei urte luze hauetan? Zein eduki motari eman edo ematen diogu garrantzi handiagoa? Zergatik? Zer lortzeko? Zein da, azken finean gure helburu nagusia?

Euskara ikas dezaten izan ohi da erantzunik hedatuena zalantzarik gabe, baina *Euskara* hori zehazten hasten bagara, ohartuko gara gure artean dauz-

kagun ezberdintasunez. Noski, ezberdintasunak izatea, berez, ez da txarra, aberasgarria ere izan daiteke eta da. Dena den, *Euskara* horretaz zer ulertzen dugun argitzea ez letorkiguke gaizki. Baina hori beste egun baterako gaia da.

Zer eskaini behar diogu A ereduko ikasle bati? Batzuek gramatika eta ariketa analitikoak aipatuko dituzte, besteek Funtzio Komunikatiboak; ondokoek, berriz, mintzamina eta jokoak, eta atzean daudenek idazmina eta testugintza. Nola jarri ados? Saiatzen al gara adosten zer den benetan garrantzitsua aurrean daukagunarentzat, edota besterik gabe liburu batean datorrena iren-tzarazten diegu?

Gaur egun, geroago azalduko badut ere, nongo gazteek ikasten dute A ereduan? Zein hiritan edo lurraldetara mugatzen da A ereduko eskaintza? Zer ari da gertatzen Gasteizen edo Bilboko ezker aldean, adibidez?

Zein da Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak eskaintzen eta eskatzen duen Curriculum Diseinua? Programazio horrek metodologi bide-ren bat aipatzen al du?

Eta azkenik, eta garrantzitsuenak, A eredu xeble honetan lanean dihardugunok jakin badakigu ikasle hauek ez dutela inondik inora euskara maila oparo eta duina lortzeko aukerarik. Ez behintzat B edo D ereduan ikasita lortuko luketena bezain aberatsa. Beraz, zer... demontre egiten dugu hemen, lana egin nahian, sei urte ikasten eman ondoren gudan etsipenak jotzeko aukera asko baldin badaude. Duela urte pare bat edo Berritzegune bateko arduradun batek ez zuen sinesten aurrerago kontatuko dizuedana: A eredu-ko ikasle bat gai zela beste edozein arlotako edukiak ikasteko, testugintzan aritu ondoren ekoizpen txukunak egiteko gai zirela eta direla. Orduan, ez gaitzen harritu, asko dakitenek baina eredu honetan lanik egin ez dutenek horrela pentsatzen badute. Nire gaurko jarduna ildo horretatik doa: gai di-rela edozein lan eta behar egiteko guk beharrezko laguntza egokia eskaintzen badiegu.

Galdera asko eta erantzun gutxi. Galdera zailik ez omen dago, denak errazak omen dira; zaila dena erantzun egokia bilatzea eta asmatzea da. Hori da bederen Fernando Amezketa zioena. Halere, erantzunak bilatzen has-ten bagara, erantzun horrek markatuko du hein handi batean gure curriculu-ma eta gure metodologia. Hasi gaitzen bada!

*Lehenengo atala:*

Lehen A ereduan ikasten zuen ia gehiengoak; gaur egun aldiz, B edo D eredua aukeratu du. EAEn A ereduak daraman bilakaera guztiz ezberdina

dela uste dut, eredu honetan ikasten jarraitzen dutenak oso gutxi dira, eta eskola publikoetan atzerritarrek bakarrik aukeratzen dute eredu hau. Hemen, Nafarroan ez dakit oraindik gertaera hau eman den, baina garrantzitsua da, zeren A ereduan geratzen ari diren pertsonekin lana egitea oso zaila baita, salbuetsiak izatea eskatzen dute, ez dute ikasten jarraitzen... beraz, curriculum-a eta metodologia ereduaz at egokitu behar da, batez ere talde berezi haue-tarako. Horregatik, A ereduaren barruan ere ikus dezakezuen bezala, mailak eta taldeak daude.

*Bigarren atala:*

Lehenago galdera hor luzatu dizuet eta berriro ere hemen doakizue. Zer lortu nahi dugu eredu honetan ikasten duten ikasleengandik? Zein da gure helburua?

Eusko Jaurlaritzaren bere Metodologiazko Orientabideak liburuxkan aipatzen dituen helburuak honako hauek dira:

- Ahozko eta idatzizko benetako testu arruntenak ulertzea, informazio nagusiaz jabetuz.
- Euskara komunikatzeko erabiltzea ahozko eta idatzizko kontestu arrun-tenetan, nahiz berbaldiaren zuzentasuna aerabatekoa ez izan.
- Ikasi behar dituzten hizkuntzaren elementu formalak eta mekanismoak ulertzea, maila fonologikoan, morfosintatikoan eta lexikalean.
- Hizkuntza helburu ezberdinekin erabiltzea: informazioa, gozamina eta abar, testu-mota desberdinak aukeratuz.
- Euskararen aurrean jarrera poositiboa izatea, gizartean duen balioaz jabe-tuz eta kultur edo gizarte edukiak transmititzeko tresna dela ulertuz.

Eta jarraitzen du:

“Oro har, helburu hauetara hurbiltzeko metodologia aldatzeari ekin behar zaio. Horrek berekin ekarri behar du bai idatzizko eta ahozko testuen berrikun-tza, bai irakasmaterialarena eta bai ebaluazio-sistemarena ere. Zentzu honetan Curriculum Diseinuan azaltzen diren ideia eta jokamoldeak baliagarriak izango zaizkigu. Hizkuntzak benetako egoeretan erabiliz ikasten dira, azken finean. Horretarako, bai ahozko bai idatzizko testu desberdinekin jokatu beharko da. Hizkuntza gizarte-produktua da eta, hizkuntza gogoeta eginez baino areago, el-kar-eraginez ikasten da. Hortaz, hizkuntzaz jabetzeko ahaleginak hartuko du le-hentasuna eta oso ariketa praktikoak egin beharko dira: euskarazko liburu erra-zak irakurri, beren intereseko telebista-programak jarraitu, ahozko elkarrizketa laburrak egin, testu-mota desberdinak idatzi hizkera erraza erabiliz”.

Hizkuntzari buruzko gogoeta, beraz, hizkuntzaren jabetze-prozesuaren osagarri izango da. Gramatika, bestalde, testuak ulertzeko eta sortzen ikasteko lagungarri den tresna gisa erabiliko dugu. Gramatika tradizionalaren kontzeptu eta kategoriak baliagarri izango zaizkigu hizkuntzaren gaineko hainbat hausnarketa egiteko.

Gatozen, besterik gabe, Nafarroako Gobernuak zer dioen aztertzeraz helburuen atalean. Gehiago izateaz gain zehatzagoak ere badira eta irakasleontzat horrelako ñabardurak lagungarriak dira (190 orr.):

- Arloan erabiltzen diren testuak ulertuz irakurtzeko behar diren trebetasunak beretzea.
- Arloko hiztegi berariazkoa eta kontzeptu oinarritzakoak zehaztasunez erabiltzea.
- Ahozko nahiz idatzizko testuak ulertzea, funtsezko ideiak eta ez funtsezkoak bereiziz.
- Gramatika aldetik zuzen eta behar bezalako intonazioaz mintzatzea.
- Hainbat motatako testuak idaztea, zuzentasunez, adierazpen aberatsez, kohesioz eta koherentziaz.
- Ahoz inprobisatzeko gaitasuna garatzea eztabaidetan, antzezpenetan eta abarretan.
- Euskara ikasi eta erabiltzeko baliabide sozialak ezagutzea.
- Euskara baloratzea Nafarroako kultur ondare gisa.
- Euskara batzeko eta estandarizatzeko prozesua baloratzea eta ezagutzea.
- Euskalkiak ezagutzea, bereiztea eta baloratzea.
- Euskararen historiaren datu funtsezkoak jakitea, baita inguruko hizkuntzekin izan dituen harremanen ingurukoek ere.
- Euskal idazleen puntako puntako lanak ezagutzea.
- Ahozko nahiz idatzizko literaturaren adierazpide guztiak, plazer estetikoaren eta bizi sozialaren eta giza esperientziaren ezagutzaren iturritzat hartzea.
- Gaitasun kritikoa garatzea, mota guztietako testu idatzien eta ahozko mezuen aitzinean.

Konturatu zarete, noski, aldaketa handirik ez dagoela, ez batean ez bestean. Baina helburu horiek denak, eta ez dira gutxi, batean bakarrik biltzen ikasi genuen gure eguneroko jardunean, gure A ereduko ikastetxe horretan: arrotz eta ezezagun zen inguru batean *Euskara* hizkuntza eta hizkuntzarekin loturik doazkion ezaugarri eta osagai guztiak ezagutzen eta maitatzen ikas zezaten. Hori izan zen gure helburu nagusia, eta konturatu bazarete, lehen ai-



patu ditugun helburuetariko bat zen bai Eusko Jaurlaritzaren Diseinu Curricularrean bai Nafarroako Gobernuarenean ere.

Eta kasu askotan lortu ere egin genuela esan behar dut. Badakit hemengo asko A ereduko irakasle gisa bi pentsamendu datozkizuela ikasturte hasieran, hor iraila aldean, bata, zertarako saiatuko naiz batek ere ez badu lortuko eus-kara maila polita eskuratzea, zer ibiliko naiz ni hemen alferrikako lanean, politikariek nahi dutelako edota presio gehiegi daukatelako kentzeko edo egokitzeke? Eta beste pentsamendua, ezer gutxi egin dezaket, baina misiolari izan gabe, saiatuko naiz gure mundua, guregandik hurbil daukagun gizartea erakusten, gu bizi garen *Euskal Unibertsora* erakartzen, eta erakarri esan dut nahita, hori lortzeko artea, trebetasun berezia, maitasuna... beharrezkoak baitira.

Nafarroako Gobernuak arlo garrantzitsu bat aipatzen du bere helburuetako zerrendatze horretan: Arlo soziokulturala. Nire ustez, jorratu behar dugun arlo nagusia da, beraiengandik hurbil sentitu behar dutena da, eta gai nagusi hau landu eta erakustera eman ez gero hurbiltzen ari dira bere aukeratzeko unera; aspaldi esan zuen baten batek, ezin da aukeratu ezagutu gabe. Eta gure A ereduko ikasle hauek ez dute gure literatura ezagutzen, gure mitologia, gure musika, gure... hainbat kontu. Beraz, hori ere bada gure lana eta horregatik, helburuak helburu, horrek izan behar du gure helburu nagusia eta bakarra. Beste helburu nagusiak atzetik loturik etorriko zaizkio eta geroago adieraziko dizuet nola.

Nola programatzen dugu? Zein metodologia darabilgu? Ez dakit zenbat urte daramatzazuen irakaskuntzan. Nik batzuk bai, eta oraindik erretirorako beste batzuk falta zaizkidanez jarraitu egin beharko dugu. Horrela, berriak ez garenok jakintza gai honetan, atzera begira jartzen bagara, konturatuko gara Euskararen irakaskuntzaren metodologiak bere bide luzea egin duela, eta gaur egun oso aurreratua dagoela esatera ausartuko nintzateke. *Euskalduntzen, Urraspideak, Jalgi hadi, Habe langaiak, Jotake, AEKko horma-irudiak, Baietz, Bakarka, IKA, Ikaslearen esku gramatika, Euskararen gramatika didaktikoa, Zubia, Goazen, Murgil, Esaizu, Elkarlanean, Ibaizabal...* ez dut jarraituko ze ziur ahaztuko dudala baten bat.

Garbi dago bilakaera mardula eman dela, eta beharrak ere aldatu egin dira. Liburu eta metodologia denak ez dira egokiak denontzat, batzuk aproposagoak dira helburu batzuk lortzeko. Gogoan dut Jalgi Hadi-ko Horma-irudi handi haiek hartu eta Gasteizko Ospitale batean eskolak ematen hasi nintzenean oso gazte. Laster konturatu nintzen aurrean nuen taldearekin ezin izango nuela praktikan ipini metodologia hura: errepikatu eta errepika-

tu buruz ikasi arte istorioa eta ondoren zenbait aldaketa eginez beste esaldi batzuk sortu. Zein zen nire arazoa? Bada, taldeko jende guztia ez zela errepi-kapenez ikasteko gai, 55 urteko gizon bik ez zuten ikasten ezer 15 urte zituz-tenetik eta hori beraientzat gehiegi izan zen, eta egokitu behar izan nuen eta erabat aldatu eskola emateko modua.

Zergatik kontatu dizuet hau? Aurrean liburu asko dauzkagu, batzuk onak eta besteak ere bai, denak dira erabilgarri. Bakarrik jakin behar dugu guk lor-tu nahi ditugun helburuak zeinekin lortuko ditugun errazago eta azkarrago, zeinekin moldatuko naizen hobeto edukiak, prozedurak eta jarrerak lantzeko orduan. Eta hori da errazki esanda metodologiako araurik garrantzitsuena. Zenbat mintegitan aztertu dugu benetan liburu bat? Benetan aproposak al dira gure helburuak eskuratzeko? Azterketa sakona egin al diegu? Guk ikusi eta irakatsi nahi duguna eta era ere sumatzen al ditugu? Beraz, merkatuan da-goen eskaintza ez da zabala, ez, baina badugu non aukeratu. Baina ez ahaztu, guk, irakasleok jakin behar dugula zer liburu eta metodologia erabili behar dugun helburu hori edo horiek lortzeko.

Ez ditugu helburu berak landuko eta agian lortuko gramatikan oinarritu-tako metodologia batekin, eta Funtzio Komunikatiboak edo Testugintza edo Proiektuetan oinarritutako beste batekin. Horregatik, erabaki behar dugun lehenengo gauza da, lehen esan bezala, zer nahi dugu guk gure ikasleek lor-dezaten? Zein helburu jorratuko dugu edo ditugu? Noski, salgai dauden me-todologia denek edo ia denek helburu guztiak jorratzen dituztela diote. Egia da, baina batzuek beste batzuek baino gehiago.

Adibide bat jarriko dut: orain modan omen dago testualitatea eta testu-gintza lantzea, hitz batean testu bat izatea oinarri eta ez lehen bezala, esaldia. Garbi dago esalditxoak motz geratu zaigula aspaldi honetan. Konturatu baza-rete gaur eguneko liburu denek lantzen dituzte testu motak. Bai, baina nola?

Beste adibide bat jartzearen, eta A ereduontzat buruko mina sortu izan ohi duena: mintzamina nola landu? Ez duzue aurkituko liburu bat bera ere mintzamenaren arloa landu gabe utzi duela aitortzen duenik; nik bederen ez dut ezagutzen.

Orduan, nola jakin dezakegu zein liburu eta zein metodologia aukeratu?

Lehenengoa eta garrantzitsuena: Norberaren esperientzia. Ja!! Eta hori esatera etorri haiz hona? *“Hobe huan etxean geratuta”* esango du norbaitek. Bada, bai, baina, hala da. Norberak edo mintegiak ikusi behar du zertan ema-ten duen denbora ikastunitatea egitean ikasleekin. Liburu guztiek dituzte gida liburuak edo oharretako orri bereziak, ia inortxok ere irakurtzen ez ditu-gunak, eta hor azaltzen omen dute zer lortu nahi duten eta zein den biderik

egokiena hori lortzeko. Nik adibidez, testugintza edo mintzamena eta taldekako lanak landu nahi ditut eta urte osoko klaseak kontuan hartzen baditut eta aukeratu dudak liburu horrek nik nahi ditudan arloetarako batek sei ordu baino gehiago ez badizkit eskaintzen, garbi dago nire helburuak ez direla asetu eta liburu hori niretzat ez dela egokia.

Une honetara iritsita, hel diezaiozun zezenari adarretatik.

Arestian aipatu dizuet zein izan den gure helburu nagusia: euskarara erakartzea. Bada, hori lortu nahi badugu, has gaitzke aldatzen. Gaurko ikaslea, eta hau ez dut nik bakarrik esaten, nahiko alferra da eta lanean jartzeko ahalagin handiak egin behar ditugu. Baina, eskaintzen dizkiogun jarduerak ez badira erakargarriak, motibazioa ez badugu jorratzen, jai daukagu.

Nik ez dut uste, eta urteetako esperientzia da, ona edo txarra, gaur NNN landu, bihar basoari dagokion hiztegia, etzi konparaketak, etzidamu irakurketa eta ariketa analitikoak... bide egokia denik ikasleak erakartzeko eta ikasteko zerbait egokia.

Orain arteko jardueran etekina atera badiegu ikasleei, motibazioa piztuz izan da, ekintza erakargarriak eskainiz, eta eskaini esan dut, beraiek ere gurekin aukeratzetik bazutelako bere garaian. Hamar hamabost egunez proiektu bat burutzen ematen zuten eta hau amaituta eskuarte beraiek egindako lanak zeuzkaten, onak edo txarrak, baina beraiek eginak eta ikusi nahi zituenarentzat ikusgai: gelako gurasoen Gabonetako ohiturak, Gelako aurkezpen liburua, zure hiri edo herriaren aurkezpena, irakurritako liburu baten triptikoa, iragarki bat, esketx antzeztu bat, gogoko musika taldearen txostena, taldeka eginiko aldizkaria... eta abar luze bat (27ren bat).

Proiektu hauen ideia ez da gurea, ez, baina horrek bost axola, guk hasi genuenean ez baikenekien teorizazio sakonak eginak zeudenik honelako metodologian; eta, gainera, denon eskura, irakurri eta sakondu nahi duenarentzat.

Bide bat sumatu genuen eta horri ekin genion, klasean eta gelan ikasleek aukeraturiko proiektuak martxan jartzen hasi ginen. Ondo zihoan, ikasleak pozik, gu pozik. Orduan argitaratzeko aukera izan genuen eta gelan egiten genituen proiektuak kanpora ateratzeko parada izan genuen. Baina hori beste istorio bat da. Garrantzitsuena da gelan egindako lanak etekina izan zuela eta gure lana hor dagoela ikusi nahi duenarentzat, baina garrantzitsuagoa da hasitako bideari erreparatzea, biziki emankorra delako.

Irakaslearen aldetik askoz ere lan gehiago eskatzen du hasiera batean, kurso osoko helburua edo helburuak eta edukiak oso argi izan behar dituzulako, jakin behar dugu proiektu bat eskaintzen dugunean zer landu behar dugun,

zer den garrantzitsua, batzuetan ez dakizu klasea nola amaituko den, irekiak baitira ekoizpen aldetik, erantzunak irekiak dira, norberak sortzen du eta sormen horrekin egiten du klaseak aurrera. Beraz erritmoak neurtzen zailagoa da.

Arratsaldeko bostak dira. Gramatikalegi irakaslea sartu da irakasle gelan azkar azkar Edukinaga andereñoa agurtu ere egin gabe. Apalategietara joan da itsu itsuan eta liburu artean hor dabil ez dakigu zeren bila.

*Edukinaga andereñoa:* E! Arratsalde on! Gramatikalegi jauna. Zer zabilta hor bilatzen kasurik ere ez egiteko?

*Gramatikalegi irakaslea:* Ai. Barkatu Edukinaga andereñoa. Ez zaitut ikusi. Nola zaude? Nire subjuntiberari buruzko klaseko ariketak bilatzen ari naiz. Ehun adizki dituen azterketa bat prestatu dut eta ez dakit nahikoa izango den ondo ikas dezaten. Ez duzu zuk izango erabiltzeko moduko ariketaren bat?

*Edukinaga andereñoa:* Bada, orain esaten ari zarela... Ruizmateos jaunaren elkarriketa bat dut, bertan demokraziaren gainean dihardu.

*Gramatikalegi irakaslea:* Baina, baina... nola aukeratzen duzu gai hori subjuntibera lantzeko?

*Edukinaga andereñoa:* Oso ona da. Espainia mailan hain ezaguna den gizon xelebre honek bere hitz egiteko eragatik adizki mota hau barra-barra erabiltzen du, hipotesiak sarri botatzen ditu, eta badakizu, probabilitateak aditz modu hau eskatzen duela eta...

Proiektugoikosoroa anderea sartzen da irakasle gelan.

*Proiektugoikosoroa:* Kaixo, zer moduz?

*Edukinaga andereñoa:* Kaixo, neska! Nola hatarren!! Beti habil fotokopiaz gainezka eta marrazkiz beterik.

*Proiektugoikosoroa:* Ba, beno, bai. Gaur beste proiektu batekin hasi gara eta Espainiako hauteskunde orokorren gainean izango da.

*Gramatikalegi irakaslea:* Ez duzu izango subjuntiberari buruzko ariketaren bat? Azterketa goiz amaitzen badute ez dakit gero zer egin eta adizki hori ondo ikasi behar dute.

*Proiektugoikosoroa:* Bada, bai. Uste dut hemen paperen artean badudala zerbait. Ikasleek adierazteko subjuntibera erabiltzeko ariketa da.

*Edukinaga andereñoa:* Nik eskaini diot bat. Testu bat da eta bertan hutsuneak osatu behar dituzte dagozkion adizkiak ezarriz.

*Gramatikalegi irakaslea:* Agian hori baino errazagoa da eta ikasleek buruz ikasteko errazagoa.

*Proiektugoikosoroa:* Begira, ariketa honek badu zerikusia orain gelan egiten ari garenekin. Gaia hauteskundeak direnez, ikastalde bakoitzak zein taldek irabaziko dituen hauteskundeak eta zergatik azaldu behar du

*Gramatikalegi irakaslea:* Ulertzen dut. Era honetan ikasleek adierazi behar dute beraien ustez zer gerta daitekeen eta hori lortzeko nahitaez subjuntibera erabili beharko dute.

*Proiektugoikosoroa:* Bai, eta beste aditz moduak ere, ezen...

*Zuzendaria:* Baina, oraindik hemen? Zer gertatzen da? Ez al zarete konturatzen ordukotasuna guk ez badugu zaintzen ikasleek ere...

Baina zer da proiektu bat? Ariketa eta prozedura batzuen bidez ikasle batek edo talde batek sortzen duen testu bat, ahoz zein idatziz. Hasiera bat dauka, pretesta izan badezake ere, eredu bat eskaintzen zaio ikasleari amaieran sortu beharko duenaren antzekoa. Ulermen ariketa batzuen ondoren testu eredu hori sortzen hasiko da bakoitza. Egiten dituen ariketa eta prozedura guztiak amaierako lanarekin zerikusia dute, eta poliki-poliki ikaslea sormen horretara bultzatzen da.


Eta zer dauka metodologia honek besteek ez daukatena?

- *Lehenik:* erakargarritasuna badu berez eta hori ez da txarra.
- *Bigarrenik:* aste bat baino gehiago behar denez proiektua aurrera ateratzeko, trebetasun guztiak lantzeko parada izaten da:
  - *Irakurmena:* informazioa bilatzeko asko eta leku batean baino gehiagotan irakurri behar dute.
  - *Idazmena:* Normalean proiektuak idatziz aurkezten dira eta bestee-tan, sortu artekoa idatzi egiten dute, testu mota ezberdinak baitira.
  - *Mintzamena:* Gela barruko hartu-emana euskaraz izatea lortzen da, azalpenak, eskaerak, galderak, zerbait lortzeko beharrezkoak direnez, ez daukate beste erremediorik. Honekin batera, eta hemengo proiektuak ikusten dituzue, beti beste batzuei erakusteko eta azaltzeko dira.
- *Hirugarrenik:* edukiak garrantzitsuak dira proiektua burutzeko garrantzitsuak diren heinean. Urte horretan gelari dagozkion edukiak dira, proiektuetan zehar banaturik. Edukin hauek ez dira helburu baizik eta bide eta tresna proiektua lortzeko.
- *Laugarrenik:* prozedurak ezinbestekoak dira, bestela agindutako lana ezin-go baitute burutu.
- *Bosgarrenik:* ebaluazio irizpideetan baloratzen duguna alde batetik proiektua da baina baita lan hori lortu arte egindako lan guztia ere, hau da, eguneroko lana.
- *Seigarrenik:* proiektuak bai banaka bai taldeka sortzeko eginak daude, eta aukeran ematen dira, taldearen arabera.
- *Zazpigarrenik:* ebaluatzeko orduan, proiektuak Kontrol zerrenda bati jarraituz eginak daudenez gero, era horretan ebaluatuko dira. Ikasleek

badakite zer ebaluatuko dugun eta nola, zer den garrantzitsua eta beharrezkoa unitate didaktiko horretan. Aipatu behar da ikasleek ere bere ikaskideen lanak ebaluatzen dituztela. Honekin batera aipatu, ebaluaketa sistema honekin irakasleak nahi izanez gero ikasleak berak ere bere burua ebalua dezakeela. Horretarako fitxa batzuk ditugu eginak eta aldaketa gutxirekin oso erraz moldatzen dira. Fitxa hauek disketetan daude eta oso errazak dira erabiltzen.

- *Zortzigarrenik*: errakuntza sistema ere aldatzen da, ikasle autonomia eta kritikoa sortu nahi badugu (eta hau Diseinu Curricularrean dator baina noski, gero aukerak eskaini behar zaizkio ikasleari kritikoa izateko eta berak pentsatzen duena esateko eta baloratzeko), gai izan behar du bere akatsak zuzentzeko eta ebaluatzeko, bai bere lana bai besteena ere. Hemen anekdota asko daude kontu honekin baina hori beste gai bat da. Errakuntza klabeen bidez egiten dugu. Hasiera batean guk akatsa markatu eta zuzendu egiten diegu. Aurrerago bakarrik klabea jarri. (D, H, O, AA, ALD, ALM, ALP, S, E...)
- *Bederatzigarrenik*: Ez du axola ikasle batek zenbat dakien baizik eta zenbat eta nola egiten duen lan. Beti dago gelan asko dakien bat eta aspertzen dena, edo gutxi edo ezer ez dakiena eta ez dena sartzen taldean. Hauentzat da oso aproposa metodologia hau. Era honetan lana eginda oso ikasle gutxi aspertzen dira. Benetan diotsuet. Atzera geratzen diren ikasle horiek (batez ere jarreragatik) integratu egiten dira, ikasten dutena eskuartean ikusten dutelako, hasiera eta amaiera bat du bere ikasprozesuak.
- Eta ez dago hamargarrenik, Jainkoaren Mandamenduak hamar izan baitziren, eta ez da hori nire helburua.

**Unitate didaktiko bat sortzeko  
egin beharreko urratsak**



Bai, badago hor atzean norbait eskua altxaturik eta galdezka, zer? A bai! Eta gramatika, noiz azaltzen duzue gramatika? Noiz eduki kontzeptualak? A ereduak dira, baina hauek ere gramatika behar dute, ezta?

*Noski baietz.* Irakatsi behar diegun hizkuntzak zuzena izan behar du. Eta eduki horiek ezagutu behar dituzte eta kurtsoa amaitu baino lehen ikasiko dituzte. Baina gure helburua ez da hizkuntzaren metalinguistika irakastea, ez behintzat helburu nagusia. Gure helburua da eduki horiek behar dituztenean ezagutzera ematea, zerbait komunikatzeko edo proiektu bat sortzeko ezinbestekoak dituztenean, denok jakin baitakigu hizkuntzak ziklikoak direla, agertu eta ezkutatu egiten direla beharrak, eta gutxien espero ditugunean berriro behar ditugu.

Adibidez, iragarki bat egitea da proiektu bat. Garbi dago gaur eguneko publikitatean konparaketak, superlatiboa, baldintza, agintera behin eta berriro agertzen direla. Bada, proiektu hori burutzeko adibideak, ereduak eta azalpen gramatikalak ere, nola ez edo zergatik ez, ematen dizkiegu hauetaz jabe

daitezen, eta behar duten neurrian eduki gramatikal horiek ondo eta sakon azaltzen dizkiegu, erabili beharko dituztelako proiektua burutu ahal izateko.

Honelako unitate didaktikoak gu geu hasi ginen ikastetxean sortzen eta praktikan jartzen gure eguneroko lanean. Zuek ere egoki baderitzozue, has zaitezke horretan. Hasiera batean, ez dakit zenbat aldiz esan dudan jada, ikasleak gureganatzea zen helburu, aurrerago euskara ikasten jarraituko zutelako itzaropena izan nahi genuen. Denboran aurrera eginez, urte batzuk beranduago ikusten duzunean zure ikasle ohi bat EGA azterketara aurkezten, benetan polita dela, zer ikusirik baduzulako zuk ikasle hori hor aurkitzarekin.

Bada, has zaitezte bilatzen zein gai duten gogoko zuen ikasleek. Askotan gaiak berak ematen dizu bai helburua bai prozedura mota ere: Sanferminak, Mendia eta Erribera, Gure Jotak, Inauteriak, Euskararen sorrera, Auzoko edo Herriko toponimia bilketa, Idazleak, Gogoko Abeslariak, euskalkiak...

Badugu unitate didaktiko bat non ikasleek gogoko abeslari edo talde baten lana aurkezten duten: diskografia, abeslariaren joan-etorria, estiloa, ezau-garri nagusiak, etorkizunean zer, eta amaitzeko, abesti bat entzuten dute gela; noski prestatu duen taldearen komentarioekin. Polita da benetan eta aukera bat da gure musika ezagut dezaten eta ez Bustamanterena bakarrik.

Uste dut ikasleek ondo pasatzen dutela, ikasten dutela eta bide onean jartzen ditugula.

Amaitzeko, eta geroxeago elkarrekin egon gaitzkeela jakinda nahi duzuen galdetzeko, aipamen berezi bi baino ez:

Bata: Irabaz ditzagun ikasleak gure kulturara, bestela ez dira agian inoiz hurbilduko eta, motibazioa ez ahaztu giltza dela horretarako.

Biga: Proiektuen bidez konturatzen zara zenbait pertsona gai direla klaseari jarraitzeko, aurrean ikusten dute zer gaitasun duten, idazteko, mintzatzeko eta ohartzen dira, nola ez, euskaraz ere beste arloetako ezagupenak lortzeko gai direla. Eta horrek, benetan, merezi du.



## ERANSKINA

### 7. ikastunitatea

*Proiektua:*

*Auzoko lanbide baten erreportajea prestatu*

Unitate honetan ikasle bakoitzak bere erreportajea egingo du. Lan hau banaka egitea proposatzen da, alde batetik ikasturteko azkena delako eta bestetik, aukera pertsonal gehiago dituelako. Dena den, taldeka ere egiteko modukoa da. Unitate honetan kazetaritzarekin eta hizkuntzarekin lotura duten baliabideak neurtuko ditugu batez ere. Ikasleek lana banaka egiten badute, ebaluaketa ere horrela egitea proposatzen da, bestela bikote bakoitzak bi lan ebaluatu beharko baititu. Uste dugu ikasle bakoitza bere lana ebaluatzeko gai dela, batez ere aurretik beste unitateren bat horrela egin badute, bederen.

1. *eredua.* Lana binaka edo taldeka egin badute, egokia da. Bi ikasle edo gehiagok –gehitu ikasle kopurua nahi izanez gero– gidoia irakurri ondoren, lan hori ebaluatuko dute; beti ere lanak lasai irakurri ondoren eta ulertzen ez dituzten gauzak argitu ondoren, beharrezkoak diren zuzenketak edo aipamenak egin ahal izateko. Neurtzen diren atalak betikoak dira, aurkezpena eta testua. Testuan badaude kazetaritzarekin zehatzagoak direnak, normala denez. Horri garrantzi gehiago eman diezaiokigu, unitatea horretarako baita.
2. *eredua.* Ikasle bakoitzak bere burua ebaluatzeko eginda dago. Zailagoa da berak bere akatsak ikustea, baina neurgailu on batekin lor daiteke; eta batez ere, hori egitera aurretik ohitu baditugu, errazagoa izango zaie.
3. *eredua.* Irakasleak erabiltzeko da, baina ikasleek ere banaka erabil dezakete. Lana banaka egin badute, eta batak bestearena zuzentzea nahi izanez gero, hau da fitxa aproposa.

**Auzoko lanbide baten erreportajea prestatu proiektua  
ebaluatzeko fitxa**

Ebaluatzaileak:	Ebaluatzaileak:			
1.	1.			
2.	2.			
<b>1. eredia</b>				
<b>Aurkezpena</b>				
1. Letra ulergarria da?				
– Agindutako marjinak errespetatu ditu?			bai	ez
– Informazioa argi eta txukun ematen da?			bai	ez
– A4 tamainako koloreetako kartulinaran eginda dago?			bai	ez
– Boligrafoz edo errotulagailuz idatzita dago?			bai	ez
– Erreportajea ilustratzeko argazki edo marrazkirik badago orrian?			bai	ez
– Erreportajearen atalak garbi bereizirik agertzen al dira?			bai	ez
<b>Testua</b>				
2. Markatutako eskema kontuan hartu du?				
– Kontrol Zerrendan eskatutako informazioa agertzen da?			bai	ez
– Izenburua emandako aholkuen arabera asmatu al da?			bai	ez
– Sarreratxoa egokia al da?			bai	ez
– Lanbidea deskribatzen du?			bai	ez
– Anekdotaren bat agertzen al da?			bai	ez
– Ordezkapenik agertzen da testuan?			bai	ez
– Lanbidearen alde onak eta txarrak aipatzen ditu?			bai	ez
– Aipatzen al da zer asmo dituen etorkizunari begira?			bai	ez
– Estilo inpersonalik erabiltzen al du?			bai	ez
3. Unitatean ikusitako egiturak:				
– Epeak ondo adierazita daude?			bai	ez
– Galdegaia ondo erabiltzen du?			bai	ez
– Puntuazio zeinuak ondo erabili al ditu?			bai	ez
– Ortografia arauak jarraitzen al ditu?			bai	ez
– Paragrafoko nexoak eta lokailuak egoki darabiltza?			bai	ez
<b>Lana, orokorrean, nola dago?</b>	gaizki	ondo	oso ondo	bikain

**Auzoko lanbide baten erreportajea prestatu proiektua  
ebaluatzeko fitxa**

<b>2. eredia</b>				
<b>Aurkezpena</b>				
1. Letra ulergarria da?				
– Agindutako marjina errespetatu ditut?		bai	ez	
– Informazioa argi eta txukun eman dut?		bai	ez	
– A4 tamainako koloreetako kartulinan egin dut?		bai	ez	
– Boligrafoz edo errotulagailuz idatzi dut?		bai	ez	
– Erreportajea ilustratzeko argazki edo marrazkirik erabili dut?		bai	ez	
– Erreportajearen atalak garbi bereizirik azaldu ditut?		bai	ez	
<b>Testua</b>				
2. Markatutako eskema kontuan hartu dut?				
– Kontrol Zerrendan eskatutako informazioa azaldu dut?		bai	ez	
– Izenburua sortzeko emandako aholkuak jarraitu ditut?		bai	ez	
– Sarreratxo egokia egin dut?		bai	ez	
– Lanbidea deskribatu dut?		bai	ez	
– Anekdota bat kontatu dut?		bai	ez	
– Ordezkapenak egin ditut testuan zehar?		bai	ez	
– Lanbidearen alde onak eta txarrak aipatu ditut?		bai	ez	
– Etorkizunari begira, zer asmo dituen kontatu dut?		bai	ez	
– Estilo inpersona erabili dut?		bai	ez	
3. Unitatean ikusitako egiturak:				
– Epeak ondo adierazi ditut?		bai	ez	
– Galdegaia ondo erabili al ditut?		bai	ez	
– Puntuazio zeinuak ondo erabili al ditut?		bai	ez	
– Ortografia arauak jarraitu al ditut?		bai	ez	
– Paragrafoko nexoak eta lokailuak egoki darabiltzat?		bai	ez	
<b>Orokorrean, nola dago nire erreportajea?</b>	gaizki	ondo	oso ondo	bikain

**Auzoko lanbide baten erreportajea prestatu proiektua  
ebaluatzeko fitxa**

Izen-Abizenak: ..... Taldea: .....				
<b>3. eredia</b>				
<b>Aurkezpena</b>				
1. Letra ulergarria da?				
– Agindutako marjinak errespetatu ditu?	bai	ez		
– Informazioa argi eta txukun eman du?	bai	ez		
– A4 tamainako koloreetako kartulinaran egin du?	bai	ez		
– Boligrafoz edo errotulagailuz idatzi du?	bai	ez		
– Erreportajea ilustratzeko argazki edo marrazkirik erabili du?	bai	ez		
– Erreportajearen atalak garbi bereizirik agertzen al dira?	bai	ez		
<b>Testua</b>				
2. Markatutako eskema kontuan hartu du?				
– Kontrol Zerrendan eskatutako informazioa agertzen da?	bai	ez		
– Izenburua emandako aholkuekin sortu du?	bai	ez		
– Sarreratxo egokia egin du?	bai	ez		
– Lanbidea deskribatu du?	bai	ez		
– Anekdotaren bat agertzen al da?	bai	ez		
– Ordezkapenik agertzen da testuan?	bai	ez		
– Lanbidearen alde onak eta txarrak aipatu ditu?	bai	ez		
– Aipatu du zer asmo dituen etorkizunari begira?	bai	ez		
– Estilo inpersonalik erabili du?	bai	ez		
3. Unitatean ikusitako egiturak:				
– Epeak ondo adierazi ditu?	bai	ez		
– Galdegaia ondo darabil?	bai	ez		
– Puntuazio zeinuak ondo darabiltza?	bai	ez		
– Ortografia arauak jarraitu al ditu?	bai	ez		
– Paragrafoko nexoak eta lokailuak egoki darabiltza?	bai	ez		
<b>Lana, orokorrean, nola dago?</b>	gaizki	ondo	oso ondo	bikain

# NUHEOko PROGRAMAZIOA, MATERIALAK ETA EMAITZAK

*Garbiñe URREIZTI LEZERTUA / Pello MATEOS YESTE*

Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleak

## 1. Sarrera

NUHEOko Euskara Departamentua duela hiru urte sortu zen, lehen esan dugun bezala, A eta D ereduko ikasleei Hizkuntza Eskolako Oinarrizko Zikloko agiria lortzeko aukera ematearren.

Curriculuma prestatzen hasi ginenean, argi genuen ordurarte esku artean izan genuen hizkuntzaren alderdi morfosintaktikoan soilik oinarrituriko curriculumak goia jo zuela eta curriculum modernoa, hizkuntzaren irakaskuntzaren ikuspegi teoriko berrietatik sortutakoa nahi genuela.

Gaur hemen oso modu laburrean A ereduan Bigarren Hezkuntzako ikasleek Oinarrizko Zikloko agiria lortu ahal izateko ezarri dugun curriculuma aurkeztuko dizuegu. Hasieran curriculum honetako alor bakoitzak (helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazioa) dituen ezaugarriak aipagarrienak komentatuko ditut, eta bukatzeko curriculum honek A ereduari eskaini diona laburbilduko dut.

## 2. Garapena

### *Helburuak*

- a) Hizkuntzen irakaskuntzak duen helbururik nagusiena ikasleek hizkuntza hori komunikazio tresnatzat hartzea da. Oso begi bistakoa eman badezake ere, helburu honek ikaslearen ikas-estiloa aldaraztea dakar;

- izan ere ikasleak pentsatu behar du hizkuntza ezagutzea ez dela aski, erabili ere egin behar du.
- b) Hizkuntzaren alor soziokulturala garatzea. Ikasleek ulertu behar dute hizkuntza bat kontestu sozial eta kultural jakin batean gauzatzen dela. Hitzunen arteko giza eta kultur harremana hizkuntza bera bezain garrantzitsua da, garrantzitsuagoa ez bada.
  - c) Ikasleen garapen kognitiboa ahalbideratzea, hasiera-hasieratik ikasprozesuaren autonomia bultzatuz. *Ikasten ikastea* deitzen dena, hau da, ikasleari bere ikasprozesuaren jabe izaten laguntzen dioten baliabideak eskaintzea da curriculum honetako hirugarren ardatza.

### *Edukiak*

Lau motatako edukiak bereizten ditugu curriculuman:

#### a) Pragmatiko-testualak

Testuari dagokionez, testu moten sailkapena egin dugu (narraziozkoa, instrukziozkoa, deskribapenezkoa, elkarrizketa / bakarrizketazkoa, azalpenezkoa eta argudiozkoa) mailaz maila, trebetasunez trebetasun emanda eta baikoitzaren ezaugarriak zehaztuz.

Adibidez, instrukzio testua sortu eta interpretatzeko ikasleak *agintera* jakin behar du (2. pertsona), *behar izan* aditza pertsonala eta inpertsonala (irakurri behar duzu / da), *denbora markatzen duten lokailuak*: ondoren, baino lehen, gero, aurrena, azkenik... Eta honekin batera testuari koherentzia eta kohesioa ematen dizkieten baliabide testualak.

Kontestuari dagokionez, eguneroko bizitzan gauzatzen den komunikaziorako beharrezkoak diren hizkuntz funtzioen sailkapena ere eman dugu: informazio funtzioak, jarrera funtzioak, ekintza funtzioak, diskurtso funtzioak. Hizkuntza funtzioei arreta jartzea ikuspegi komunikatiboak eman duen aurrerapausorik garrantzitsuenetakoa da, irakatsi behar den hizkuntzak dimentsio soziala hartzen duelako eta hizkuntz formak funtzio horien zerbitzutan jartzen dituelako.

#### b) Formalak

Hizkuntzaren barne arauak dira, morfo-sintaxiari zein lexikoari dagozkionak.

Ikasleak komunikaziorantz daramatzen metodoa erabiltzeak ez du inola ere esan nahi hizkuntz formak, edo ohiko terminologia erabiliz, *gramatika*, beharrezkoa ez denik. Jakina! Ikasleak ongi ahoskatzeaz gainera, arau morfo-sintaktiko eta lexikoaren ezagutza-maila ona izan behar du hizkuntza batean komunikatuko bada. Baina, lehengo metodologiaren aldean, ezagupen formalak ez dira besterik gabe irakasten, benetako asmo komunikatiboa dagoe-nean baizik. Oraingo ikuspuntu metodologikoen arabera, gramatika ezagutze hutsa ez da nahikotzat jotzen hizkuntza bat barneratu ahal izateko.

Konparaziorako, kontua ez da *erlatibozko esaldiak*, adibidez, 2. mailako programan sartzen direlako besterik gabe irakastea. Kontua da nozio funtzional baterako (*pertsonen, lekuen eta abarren deskribapenerako*) erlatiboa ardatza dela eta ezagutu egin behar dela ezinbestean. Ikasleak bere lagun baten deskribapena egin behar badu, erlatiboa behar-beharrezko baliabide bilakatzen zaio.

#### c) Psikolinguistikoak

Komunikazio prozesuan badira hainbat eragiketa psikolinguistiko nahi-taezkoak direnak. Eragiketa hauek modu eraginkorrean burutu ahal izateko zenbait estrategiaren laguntza behar dute ikasleek. Bi motatako estrategiak behar dira:

- a) *Ikas-estrategiak*: ikasleak ikasteko eta ikasitakoa antolatzeko erabiltzen dituen prozedurak dira.
- b) *Komunikazio-estrategiak*: ikasleak helburu komunikatiboak lortzeko bidean aurki daitezkeen arazoak gaingintzeko erabiltzen dituen baliabideak dira.

#### d) Kulturalak

Hizkuntza bat ikastea, besteak beste, hizkuntza hori erabiltzen dutenen komunitatearen kultura murgiltzea ere bada.

### 3. Metodologia

Funtsean esan dezagun gaitasun komunikatiboan oinarritzen den ikuspegi metodologikoa aukeratu dugula, nahiz eta badakigun ezin dela esan metodo hau edo hura onena denik. Benetan uste dugu, maila honetan (Oinarritz-

ko Ziklora artekoan) bederen, mezua helarazteko gauza izatea nola komunikatzen den baino garrantzitsuagoa dela. Arestian esan dugun bezala, ikuspegi didaktiko honetatik ikusita, hizkuntz formak, lexikoa, eta abar komunikazioa helburu delarik irakasten dira.

Metodo komunikatibo honek komunikaziorako behar-beharrezkoak diren lau trebetasunak garatzen ditu (irakurmena, entzumena, idazmena eta mintzamina) eta gainera laurok garrantzi-maila berean jartzen ditu.

Bestetik, ikuspegi komunikatibo honek duen beste ekarpen bat akatsen trataera positiboa da. Izan ere akatsek ikasten ari den hizkuntza berria barneratzen ari dela esan nahi dute. Beraz, akatsak ikaslearen ikasprozesuan normalizat hartzen dira, are gehiago, ikasprozesu horren adierazle dira.

Honek azken finean ikasleak irakaskuntzan duen papera aldatzen du. Lehengo metodoetan eskuratu beharreko hizkuntza zen irakaskuntzaren ardatza. Oraingoan, berriz, ikaslea da ardatz nagusia; bera baita ikasprozesuaren protagonista.

Planteamendu honen ondorioz, irakaslearen zeregina ere aldatzen da ikasleari irakaskuntzaren lema pasatzeko. Bestetik, ikaslea ardatz izateak esan nahi du ikasleak bere ikasprozesua era autonomoan kontrolatu behar duela, ikasprozesuaren jabe izan behar duela; izan ere ikasleak baldin badaki zergatik, zertarako eta nola ikasten duen, ikasprozesua arrakastatsua izango da.

Metodologiarekin bukatzeko atazen inguruko aipamena egin nahi nuke.

Arestian esan dugu metodologia komunikatiboak hizkuntz funtzioei arreta jartzean, aurrerapauso oso nabarmena eman zuela hizkuntzen didaktikan. Funtzio hauek ikasleei gramatika eta komunikazioaren artean zubiak eraikitzen laguntzen diete, baina berez, funtzioak ez dira komunikazio prozesuak; atazak, ordea, bai. Horrela, atazetan oinarritutako ikaskuntza ikasleari komunikazioa eskuetan jartzeko ezinbesteko baliabidea da. Atazetan ikasleek benetako komunikazio egoerei aurre egin behar diete ikasten ari diren hizkuntza erabiliz, behar komunikatibo errealek adierazteko. Atazen gainean geroxeago hitz egingo dugu.

#### 4. Ebaluazioa

Hasieran zehazten diren helburuak kurtso amaieran lortu diren ala ez egiaztatzeko, ebaluazioa da curriculum osatzen duen azken pausua.

Ebaluazioaren aurrean ikasle guztiak berdin ebaluatu ahal izateko, zuzentzeko irizpideak oso garrantzitsuak dira. Are gehiago kontuan hartzen badugu Hizkuntza Eskola batek ziklo amaieran gaitasun agiriak ematen dituela.



Hau honela izanik, mailaz maila eta trebetasunez trebetasun xedatutako helburuak jomuga hartuta, gaitasun komunikatiboa baloratu behar duten ebaluazio-irizpideak prestatzeari ekin diogu. Eta prestatu ez ezik, zabaldu ere zabaltzen ditugu Bigarren Hezkuntzako irakasle kolaboratzaileen artean.

Ebaluazio-irizpideok prestatzeko HABEkoak eta Erreferentzi Marko Europarrak (MRE) eskaintzen dituena ibili ditugu esku artean. Adibide modura, Oinarrizko Zikloko *mintzamena* eta *idazmenerako* prestatuak ditugunak ekarri dizkizuegu.

## 5. Mintzamena

Honako irizpideak hartu ditugu: Mezua (komunikagarritasuna), jariotasuna, zuzentasuna eta elkarreragina. Irizpide bakoitzean okerrenetik hobere-nera doazen lau deskriptore mailakatzaille jarri ditugu.

### 1. Mezua

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Mezua ulertzea ezinezkoa da.	0	
B	Egokia eta ongi antolatua ez izan arren, mezua komunikatzea lortzen du.	1	
C	Mezua ulertzen da, nahiz eta batzuetan naturala eta oso argia ez izan.	1,5	
D	Mezua ongi antolatua eta era egokian komunikatzen du.	2	

### 2. Jariotasuna

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Isilune ugari eta luzeen beharra du.	0	
B	Egoera hurbil eta ezagunetan ere isilune ugari izango dira, nahiz eta komunikazio estrategiei esker komunikazioa mantenduko den.	1	
C	Egoera hurbil eta ezagunei jariotasunez erantzungo die. Egoera ezezagunetan, ordea, jarduna motelagoa eta isiluneak ugariak izango dira.	1,5	
D	Egoera ezagun eta ezezagunei jariotasunez egingo die aurre.	2	

### 3. Zuzentasuna

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Akats morfosintaktiko ugari egiten dituenek, era ezberdinetakoak eta behin eta berriz errepikatuak, mezua ulertzea ezinezkoa egiten da.	0	
B	Egiten dituen akats morfosintaktikoak oraindik ugariak eta sistematikoak dira, nahiz eta mezua ulertzea zeharo oztopatzen ez duten.	1	
C	Oinarritzko egitura morfosintaktikoak (ergatiboa, relatiboa, nominalizazioa, konpletiboak) ezagutzen dituela erakusten du, nahiz eta mezua ulertzea oztopatzen ez dituen akats ezberdinak egiten ahal dituen. Jariotasuna motelduko du jarduera zuzena izatearren.	1,5	
D	Orokorrean, kontestu hurbil eta ezagunetan, morfosintaxiari dagokionez, jardun zuzena adieraziko du, nahiz eta akatsen bat egiten ahal izango duen. Egoera ezagun eta ezegunetan lexiko egokia erabiliko du, eta kalko linguistikoek ez dute komunikazioa oztopatuko. Ahoskera eta entonazioa zuzenak izango dira.	2	

### 4. Elkarreragina

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Ikasleak dituen zailtasunek, solaskideekin izan behar duen informazio trukaketa ezinezkoa egingo dute.	0	
B	Solaskideekiko elkarreragina posiblea izango da, nahiz eta parte hartzeak laburrak izan.	1	
C	Bai egoera komunikatiboari bai solaskideen jardunari erantzuteko gaitasuna (gaia aldatu, elkarrizketean sartu), eta erraztasuna erakutsiko du. Parte hartze bakoitzeko jardunak luzeagoak izango dira.	1,5	
D	Solaskideekin izango duen informazio trukaketan naturaltasuna eta bat-batekotasuna erakutsiko du.	2	

## 6. Idazmena

Honako irizpideak hartu ditugu: Mezua (komunikagarritasuna), koheren-  
tzia-kohesioa, zuzentasuna, egokitasuna eta aberastasuna. Irizpide bakoitzean  
okerrenetik hoberenera doazen bost deskriptore mailakataile jarri ditugu.

### 1. Mezua

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Ez du mezua komunikatzerik lortu, edukina zeharo iluna eta ulertezina baita. Edo proposatu zaion gaiari ez dio heldu.	0	
B	Proposatutako gaiari heldu badio ere, oso informazio gutxi eman du. Irakurleak ahalegindu behar izan du testua ulertzen.	1	
C	Informazio hutsuneak izanda ere, nahikoa eman du. Ideia batzuk alferrik errepikatu ditu. Gainera, mezu orokorra ulertu da.	2	
D	Gaiari heltzerakoan, informazio kopuru dexente eman du. Mezua ongi ulertu da, nahiz eta ideia batzuk erredundanteak edo errepikatuak egon.	3	
E	Informazio asko eman du. Ez dago ezer soberan; izan ere ideia guztiak beharrezkoak eta osagarriak dira. Irakurleak aise ulertu du mezua.	4	

## 2. Zuzentasuna

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Maila morfosintaktikoan egin dituen akatsek, ugariak eta diren bezalakoak izanda, zeharo ilundu dute esanahia. Oker erabili ditu ortografia eta puntuazio-markak. Idazki kaotikoa.	0	
B	Maila morfosintaktikoan egin dituen akatsak, koianturalak nahiz sistematikoak, asko dira, baita egitura sinpleetan ere. Aipaturiko hutsek idazkiari itxura kaotikoa eman ez badiote ere, esanahia nekez ulertu da. Ortografia zein puntuazio-markak erabiltzean, gabezia nabarmenak ikusi dira.	1	
C	Egindako akatsak egitura konplexuei (erlatibozkoei, konparaziozkoei, zenbait nominalizaziori...) dagozkie. Gehienak koianturalak badira ere, oraindik ere soma liteke akats sistematikoren baten aztarna. Dena den, akatsek ez dute esanahia ilundu. Zuzen erabili ditu ortografia eta puntuazio-markak, batzuetan hutsen bat egin badu ere.	2	
D	Zuzen erabili ditu, oro har, maila honetako egiturak. Noizbehinka egin dituen akatsak ez dira sistematikoak izan. Zuzen erabili ditu, oro har, ortografia eta puntuazio-markak.	3	
E	Oso zuzen erabili ditu maila honetako egiturak. Ortografiaz eta puntuazio-markez ere zuzen baliatu da.	4	

### 3. Koherentzia, kohesioa

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Idazkiaren pasarteak ez daude elkarri josiak; ideiak nahasian azaltzen dira. Ez dago garapenik. Honen ondorioz, testu inkoherentea, zeharo ilunduta, ageri da.	0	
B	Edukiaren antolaketa moduko bat antzeman badaiteke ere, ideia nagusiak eta azalekoak bereizten ez dakiela somatu da. Ideien arteko joskerak huts egin duenez, diskurtsoaren haria moztuta geratzearekin batera ulermen arazoak ageri dira.	1	
C	Idea nagusiak eta azalekoak bereizten eta lotzen dituen edukiaren antolaketa logikoa ageri da testuan, nahiz eta oraindik ere kohesio-forma sinpleak eta esaldi motzak erabili. Diskurtsoa noizbait nahasi samarra izan arren, ez dago moztuta, eta haria segitzen ahal da.	2	
D	Testua antolaketa logiko baten arabera dago gorpuztua. Pasartean arteko lotura kohesio-forma ugari bidez ageri da. Ideia konplexuren bat azaltzeko zailtasuna erakutsi badu ere, oro har ongi adierazi du.	3	
E	Testua ongi antolatua dago hari logiko baten inguruan. Unean uneko kohesio-forma aukeratzen eta erabiltzen badaki. Ideia konplexuak adierazteko ere ez du aparteko zailtasunik. Irakurleak, testuaren haria kolpetik irakurrita, ulertu du.	4	

#### 4. Egokitasuna

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Idazkiaren helburua, hartzailea... ez daude garbi. Edo ez du erregistrorik bereizi. Gainera hitzen balio semantikorik ohikoenak ere menderatzen ez dituela antzeman da. Idazkia erabat desegokia da.	0	
B	Testu-motak eta testu-erak eskatzen dituzten ezaugarriak ez zaie egokitu. Zailtasun nabarmenak ditu erregistroak bereizteko. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantikoak menderatzen ez dituenek, askotan desegoki erabili ditu.	1	
C	Zailtasunak zailtasun, testu-motak eta testu-erak eskatzen dituzten ezaugarriak egokitu zaie, nahiz eta batzuetan artifizial samarra izan. Oro har, idazkiaren helburua, hartzailea eta erregistro-mota nagusiak (formala/informala) bereizi dituela erakutsi du. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantiko guztiak menderatzen ez dituenek, desegoki erabili ditu batzuetan.	2	
D	Kontestuaren faktore nagusiei (testuaren helburua, hartzailea, erregistro motak, testu-mota eta testu-era) egoki lotu zaie. Erabateko naturaltasuna ez du oraindik eskuratu. Hainbat hitzek testuinguruaren arabera har ditzaketen balio semantikorik gehienak menderatzen dituenek, nekez huts egin du.	3	
E	Kontestuaren faktore nagusiei egoki lotu zaie. Naturaltasunez eta autonomia osoz idatzi du. Testuinguruaren arabera hitzek har ditzaketen balio semantikorik gehienak menderatzen ditu eta idazkiari zenbait modalizazio (ironia, umorea...) emateko gaitasuna ere ageri zaio zenbaitetan.	4	

### 5. Aberastasuna

	<i>Deskriptoreak</i>	<i>Puntuak</i>	<i>Ikasleen puntuak</i>
A	Arazo handiak ditu mailari dagozkion testu-motak garatzeko. Oso esaldi motzak erabili ditu. Egitura sintaktikoei dagokienez, kasik molde berekoak erabili ditu. Joskeran antzeman den pobrezia hori lexikoaren erabileran ere somatu da, erdal kutsua erabatekoa izateraino.	0	
B	Oraindik ere mailari dagozkion testu-motak garatzeko zailtasuna baduela somatu zaio. Gehienetan esaldi motzak erabili ditu. Hizkuntzarekin mugatu samar dagoenez, egitura ezberdin gutxi dago. Lexikoa ere urria da eta erdal kutsua nabaria.	1	
C	Oro har, maila honetako testu-motak idazten badaki. Egitura sintaktiko desberdinak erabiltzen saiatu da, nahiz eta (seguruago sentitzen delako, agian) jakin batzuk gehiago erabili. Lexikoaren ezagupena oraindik mugatua da (are gehiago gaia oso ezaguna ez denean). Erdal kutsua antzeman da oraindik ere.	2	
D	Maila honetan zehaztutako testu-motak, oro har, idazteko gauza da. Testuak aberatsak dira, egitura edota lexikoaren ugaritasuna dela eta. Erdal kutsua noizbait soma liteke.	3	
E	Maila honetan zehaztutako testu-mota guztiak idazteko gauza da. Testuak aberatsak dira egitura edota lexikoaren ugaritasuna dela eta. Erdal kutsua apenas soma liteke.	4	

### 7. Amaiera

Curriculum honekin guk, NUHEOtik, A ereduari eskaini nahi izan diogun irakaskuntzak ondoko ezaugarriak ditu:

1. Komunikazioa helburu duena.
2. Gaitasun komunikatiboaren parte diren lau trebetasun nagusiei garrantzia ematen diena.
3. Funtzio komunikatiboen zerbitzutan edukin formalak aurkezten dituen.
4. Edukin soziokulturalak islatzen dituen.
5. Irakaskuntza autonomoa bultzatzen duena.
6. Berdintasunean oinarritzen den ebaluazioa duena.

Amaitzeko, esan dezadan, onerako edo txarrerako, NUHEOk curriculum honekin homogeneizazio prozesua abian jarri duela A ereduari: estrainako aldiz gure programan parte hartzen duten ikastetxe guztietan curriculum bera, azterketa berberak eta ebaluazio sistema bera ezarri direlako.

## ERANSKINA

### NUHEOko Euskara Departamentuko Helburuak

NUHEOko Euskara Departamentuaren helburuak euskara ikasgaia duten Bigarren Hezkuntzako bi (A eta D) ereduetara zuzentzen da.

Departamentu honek A ereduan duen helburua, DBHko 3., 4. eta Batxilergoko ikasleak Hizkuntza Eskolako 1., 2. eta 3. mailan, beraien ikastetxeetan, aritu eta gero, Oinarrizko Zikloko agiria lortzeko aukera ematea da.

A ereduaren kasuan hurrengo sailkapena izango du:

DBH 3. → NUHEOko 1. maila  
DBH 4. → NUHEOko 2. maila  
B 1. eta 2. → NUHEOko 3. maila (Oinarrizko Zikloa)

D ereduan, ordea, Oinarrizko Zikloko Agiria eskaintzea izango litzateke abiapuntu, Goi Zikloari dagozkion ikasketak eskaini eta EGA titulua lortzeko aukera ematea, sailkapena hurrengo hau izango litzatekeelarik:

DBH 3. → NUHEOko 3. maila (Oinarrizko Zikloa)  
DBH 4. → Egaurrea  
B 1. eta 2. → EGA

Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak hurrengo bi helburu nagusi ditu:

- Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakaskuntzak ematea urrutiko irakaskuntzaren modalitatean, hizkuntzen urrutiko irakaskuntzaren curriculumari jarraikiz.
- Bigarren Hezkuntzako euskara ikasgaiaren curriculuma eta hizkuntzen urrutiko irakaskuntza ofizialekoa, aldi berean egiten dituzten ikastetxe kolaboratzaileetan hizkuntzen irakaskuntza koordinatzea.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta institutuekiko lankidetzarako programari esker, ikastetxe horietako ikasleek, beren borondatez, hizkuntzen irakaskuntza espezializatueta-ko oinarrizko zikloko irakaskuntzak jasotzeko aukera dute, eta hori beren institutueta-ko irakasleen bidez eta ikasgelan bertan egiten da, irakasleek hezkuntzako eskaintza honetan kolaboratzea borondatezkoa delarik.



Programa honetan esku hartzea, esan bezala, borondatezkoa da ikasleentzat eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren baimena duten ikastetxe eta institutueta egingo da. Ikasleek 14 urte baino gehiago eduki behar dituzte matrikulazioa egiten duten unean bertan.

1. Programa honetan parte hartzen duten *irakasleek ondoko eginkizun hauek izan behar dituzte:*

Programan matrikulatutako ikasleei Oinarritzko Zikloko agiria eskuratzeko prestakuntza ematea eta D eremuan honetaz gain ikasleak Goi Ziklorantz zuzentzea.

NUHEOk programaturiko koordinazio bileretara joatea.

Ebaluazio prozesuan parte hartzea, hala orientaziorako probetan (idatzizkoetan eta ahozkoetan), nola ziurtagiria emateko diren horietan (zaintzea, zuzentzea, ahozko probetarako epaimahaiak etab.).

Irakasleek beren eskola orduetatik astero ordu bat hartuko dute koordinazio lanetarako maila ezberdin bakoitzeko eta ekain eta iraileko probengatik konpentsazio ekonomikoak jasotzen dituzte.

2. Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialaren eta euskara irakatsiko duten Bigarren Hezkuntzako ikastetxe eta institutueta departamentu didaktikoen arteko koordinazio bileretan hurrengo *arlo hauek landuko dira:*

Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialak prestaturik duen programazioaren jarraipena elkarri azaltzea, ikasturte amaieran lortu behar diren helburuak kontuan hartuta.

Ikasleek lortu behar dituzten hizkuntz gaitasunen azterketa eta baita horiek praktikan erabiltzeko material eta jarduerarik egokienak ere.

Probetan aplikatzen ahal diren irizpideak aztertzea eta baloratzea.

Ikasleak ikasturte amieran egin behar dituen idatzizko eta ahozko proben antzekoak aztertu eta baloratzea; proba horietan ekimena eta azken iritzia Urrutiko Hizkuntza Eskolarena izango da.

3. *Ebaluazioari* dagokionez, NUHEOa izango da ebaluazio irizpideak ezarriko dituen, ebaluazio proben koordinazioa eta prestaketa Hizkuntza Eskolaren ardura delarik. Ikasturtean zehar ikasleek idatzizko eta ahozko probak egingo dituzte saio gisa, ikasturtearen amaieran aplikatuko zaizkion ebaluazio irizpideak praktikan ezagut ditzaten.

Idatzizko Probak Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean prestatuko dira eta ikastetxe eta institutueta irakasleek zuzenduko dituzte, NUHEOko Euskara Departamentuarekin koordinatuta. Ahozko probak egiteko epaimahai mistoak eratuko dira, Hizkuntza Eskola eta dagokion ikastetxeko irakasleez osatuz.

4. *Bitarteko didaktikoei* dagokienez, NUHEOk, bere programazioan, testuliburuak eta material osagarriak ezarriko ditu eta horien bidez aurreikusi diren helburuak, ikasturtearen hasieran zabalduko den Urteko Programazio Orokorrean azaltzen direnak, eskuratzeko laguntza helburu duen.

# A EREDURAKO INFORMATIKA APLIKAZIOAK

*Josu JIMÉNEZ MAIA*

Euskara Zerbitzuko aholkularia

## 1. Sarrera

Aspaldi joanak dira irakasleok arbelean edo paper gainean soilik lan egiten genuen garaiak. Irakasle zenbaitek, oraindik, ordenadoreak kosk eginen diolako aitzakiatan, ordenadorea erabiltzeari uko egiten diote. Ni ez nator inor konbentzitzera. Dinosauruak lurraren azaletik desagertu ziren bezala, informatika baliatu nahi ez duten irakasle horiek ere desagertuko dira. Informatikari uko egiten dion azken mamu gorriak, gorriak eta beltzak ikusiko ditu<sup>1</sup>.

Beste baliabideei uko egin gabe, ordenadorea ere izan daiteke irakaslearen laguntzaile ona; baita A ereduko irakaslearena ere.

Eta hona helduta, hauxe da irakasle orok galdetzen duena “Baina zer software dago euskaraz?”.

## 2. Euskarazko produktu informatikoak

Duela gutxi, apirilaren 24an, Interneteko Sustatun<sup>2</sup>, mezu hau argitaratu zuen Kres izeneko internauta euskaldun batek “Lotsagarria” izenburupean:

1. Ikus JIMÉNEZ, J., *Azken Mamu Gorriari adeitasunez*, Hik Hasi aldizkariaren 24. zenbakia. 1988ko urtarrila, 25-27 orr.

2. <http://www.sustatu.com/1051196173>.

“Euskal software katalogoa ikusi dut, eta lotsagarria da hain programa gutxi egotea. Uste dut esfortzu txiki bat egin beharko genukeela gehien erabilitako programak euskaratzeko”.

Nik gehituko nuke euskaratzeko eta sortzeko. Programa osoak ez badira behintzat, aplikazio txikiak sortzeko ahalegina egin beharko genuke, gure beharretara egokituak. Euskarazko software katalogo berrituan, egia da, ez dago programa askorik. Baina egon, badira batzuk:

Bulego aplikazioak (7) hizkuntza (32) aisialdia (18) tresna orokorrak (13) interneten aritzeko (9) dokumentazioa (1) eta irakaskuntza (36)

Atal horietan kopuru handiena “irakaskuntza” atalean dago. Dena den, gehienak ez dira benetan irakasleok gelan zuzenean erabiltzeko, ez dira irakaskuntzarako berez sortutako programak; etxe komertzialek salgai jartzen dituzten programak eginak dira gurasoek eros ditzaten, umeari laguntzeko asmoz etxeko ordenadorean instalatzeko. Hartara, gelan erabiltzen baditugu gerta dakiguke ikasleren batek ezagutzea produktu hori Olentzerok ekarri zion CD Rom-a delako. Gertatu da eta gertatuko da.

Ez dago A eredurako bereziki sortua aplikazio komertzial bat bera ere. Baina izan badira euskarazko produktu batzuk profitatzen eta erabiltzen ahal ditugunak. Badugu nondik hasi. Ez da gutxienekoa.

Azken urte hauetan euskaraz argitaratu diren CD Rom horiek, A eremuan, oso erabilpen murrizta izan dezakete Testu liburuekin gertatzen den bezala, neurri batean behintzat, ez dira A eredurako bereziki sortuak. Beti ere, CD Rom baten zatiren bat edo beste erabil daiteke. Jakina, horrek eskatzen dio irakasleari, aldez aurretik produktu osoa galbahetik pasatzea eta erabakitzea zer den egokia A eredu bere ikasleentzat eta zer ez.

Baina produktu komertzial horiek “itxita” daude, hau da, CD Rom batean ezin da gainidatzi, dagoena ezin da aldatu, programa itxiak dira.

Guk proposatzen duguna da beste bide bat jorratzea: programa irekiak.

### 3. Programa itxiak *versus* programa irekiak

Programa irekiak ibiltzen ikastea, hasieran, behintzat, zailagoa dela irudi dezake baina, gure ustez, A eredu irakasleentzako bide bakarra da. Bide horren helburua da A eredurako aplikazio espezifikoak sortzea. Gure ikasle beharren arabera aplikazio txikiak, guk nahi ditugun modukoak. Eta,

horregatik, programa komertzialak baino, programa irekiak ezagutu behar ditugu, gure aplikazio propioak sortzea ahalbideratzen dizkigutenak.

- Hiru adibideri baino ez natzaio lotuko.
- Ipuin multimediak sortzeko programak.

Gaur egun badira merkatuan ipuin digitalak sortzeko programak. Neobook, esate baterako, benetako emaitza profesionalak lortzeko aukera ematen duena. Hala ere, eskuragarriago izan dezakegu aurkezpen multimedia bat egiteko balio duen Microsoft Powerpoint edo freeware den OpenOffice Impress, ahaztu gabe.

Power Pointen bidezko aurkezpen multimedia egitea ez da oso zaila<sup>3</sup> Word bezalako testu prozesadorea ibiltzen dakienarentzat. Eskaintzen dituen aukerak, ikaragarriak; eta ez bakarrik bertsiio eguneratuenak. Power Point 97n egindako lanak ere oso txukun gelditzen dira eta ipuina betiko moduan lantzeaz gainera beste aukera osagarri asko ematen digu.

Guk nahi dugun eran moldatzen ahal dugu; testuarekin, testu gabe, ahotsarekin, ahotsik gabe, umeei grabatu... Eta ahaztu gabe Power Point-en bidez egindako aplikazio hauek gero ikusi ahal direla beste ordenadoreetan nahiz eta Power Point instalatuta ez izan.

#### a) *Kliken bidezko aplikazioak*

Klik Francesc Busquets katalanaren programa bat da, irakasleen artean aski ezaguna eta arrakastatsua<sup>4</sup>. Duela 6 urte euskaratu zen eta dohainik eskura daitekeen programa bat da, Interneten, Klik-en txokoan, non programa behera kargatzeko gertu izateaz gain, beste aplikazio asko ere eskura dauden<sup>5</sup>. Programa hau ibiltzen ikasteko oinarritzko ikastaro bat egitea aholkatzen dugu; Disko gogorrean oso leku gutxi betetzen duen programa bat da eta elkarketak, buruhousgarriak, puzzleak, letra zopak, eta testuak lantzeko ariketak sortzen ahal dira era erraz batean.

Gainera, sortzen diren aplikazioak interneten jartzen ahal dira denek eskuratzeko moduan; egun, euskaraz ehun aplikazio inguru daude eskuragarri,

3. Ikus ZUBIZARRETA, I., *Power Point* HIK Hasi aldizkariaren 2002ko udako topaketan zenbaki berezia, 70. zenbakia, 16. orria.

4. Ikus BUSQUETS, F., *Klik 3.0 multimedia bezkuntza ekintzak sortzeko ingurune irekia*. Hik Hasi aldizkariaren 50. zenbakia 2000ko iraila.

5. <http://www.xtec.es/recursos/clic/>.

doan, eta laster gehiago izatea espero dugu. Asko euskaratu gabe daude oraindik eta nork bere aplikazioak sortu baino lehen beste bat euskaratzea hasteko modu ona daiteke.

b) *Interneten bidezko iturriak*

Interneten egon badira hamaika iturri; A ereduko irakasleok bertatik edan dezakegu eta gure beharren arabera moldatu; beste hizkuntza bat ikas- teko erabiltzen den materiala<sup>6</sup> bildu eta moldatzen ahal dugu.

c) *Amaitzeko*

Diren guztiak ez daude baina daudenak badira. Eta hau lagin bat baino ez da, luze joko luke gehiago zehaztea eta idazki honen helburua bideak erakustea baizik ez da; norberaren esku dago, bide bat ala bestea hartzea.

Hori bai, aplikazio informatiko bat erabilgarria izateko ongi txertatu behar dugu programazioan; tresna informatikoak ez dira izan behar hutsuneak betetzeko edo ostiral arratsaldeko saio mortalak arintzeko... Gure eguneroko lanaren osagarri baizik.

Programa eta aplikazio hauek guztiak ez dira panazea. Hasiera batean, lan egitea eskatuko digute; baina gero ikasleen begietan ikusten da merezi izan duela esfortzua. Irudi, soinu, informazio grafiko horrekin guztiarekin ikasleak motibatuko ditugu. Umeek, era aktibo batez, eginez ikasiko dute<sup>7</sup>. Euskara-saioa erakargarriago egingen dugu, irudiek, soinuak eta infografiak jakin mina pizten dutelako; eta aplikazio irekiak direnez, moldagarriak dira, guk moldatzen ahal dugulako ikasleen beharren arabera.

Ez dezagun espero inork gure lana egitea; ezinbestekoa da elkarlana, ezinbestekoa uztartzea irakaslea eta informatikariaren arteko lana. Ez gaitezen geldi “musak”<sup>8</sup> noiz etorriko zain. Gogorik duten irakasleentzako bide bat izan

6. <http://www.englishraven.com/trflashcards.html>.

7. Ikus CIRERA, A.; ROJAS, P., *Nuevas formas de enseñar y aprender*, Cuadernos de Pedagogía, 2003ko urtarrila, 320 zenb. 66. or.

8. Ikus CASSANY, D., *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian, 1998ko uztaila, 21. zenbakia, 10-11 orr.: “Nik uste dut musak pertsonen buruan daudela bakarrik. Musa hitzak edo kontzeptuak, nolabait esateko, beste ekintza bat eszenifikatzen edo mitifikatzen du: lan egitea (...). Ideiak aurkitu, landu eta antolatzea; lan horri antolaketa edo musak dei diezaiokegu”.

daiteke lan taldeak sortzea; horietako baten emaitza da, besteak beste, lehen aipatu dudan Klik programaren beraren euskaratze lana<sup>9</sup>, gero hainbeste irakaslek profitatu duena. Kostatu zitzaigun, bai, baina begi-bistakoa da atera zaiola etekin ederra.

A ereduko irakasleok horrelako lanak aurrera atera ezean inork ez digu eginen. Gure esku dago.

9. Ikus JIMÉNEZ, J., *Informatika aztertzen Lan talde baten esperientzia* Hik Hasi aldizkariaren 12. zenbakia, 1996ko azaroa, 30-31 orr. Halaber, ikus. "Azkenik Klik 2.2 euskaraz!", *Hik Hasi* aldizkariaren 37 zenbakia, 28-29 orr.

## HELDUEN IRAKASKUNTZAKO MATERIALEN APLIKAZIOAK A EREDUAN

*Sagrario CRESPO ZULET*


Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko aholkularia

Euskaltegi batean zenbait urte ibili ondoren, eskola publikora pasa nintzenean, nire egoera asko hobetuko zela uste nuen: testu-liburuak izango nituen eskura, material anitza, ikuspegi pedagogiko desberdinak aurrera eramateko baliabideak... Hilabete bat pasa ez zela, behin eta berriro gogoan nituen euskaltegietan erabiltzen genituen karpeta horiek, handik eta hemendik hartutako fotokopia bilduma. Non zegoen, urteetan mesprezatu nuen materiala? Non testu-liburuak? Non programazio eginak?

Eduardok atzo esan zuena ere harrigarria egiten zait. Dirudienez, A eredu hasi zenean, helduentzako materiala erabiltzen hasi ziren, material hori aprobetxatzen zuten. Niri iruditzen zait aldrebes izan dela; eta gaur egun, oraindik ere, helduen irakaskuntzan umeentzat prestatutako materiala erabiltzen dugula. Adibidez, liburutegiko atean mailaz maila sailkatzeko liburu zerrenda bat dago. Behe-mailakoak begiratzen baldin badituzue, ia den-denak haur eta gazte literatura dira. Hau da, euskara ikasten ari den helduarentzat ez dago literatura propiorik, ez dago berez sorkuntzarik. Azken finean euskaldunak ez gara gehiegi eta hizkuntza honen irakaskuntzan lan egiten dugunok are gutxiago. Horregatik besteek egiten dutena ezagutzea komenigarria da, informazioa trukatzeko eta alferrikako lana ez egiteko.

Materialaz hitz egiten dugunean, ezin dugu ahaztu horiek ez dutela bizi-tzarik. Materialak hilak daude, geletan ikasleekin berpizten ditugu; guk ematen diegu bizitza; erabiltzen ditugunean material horiek hartzen dute balorea, aurretik ez; guk geuk ematen diegu izaera. Ariketa bera irakasle batek edo besteak hartu, A taldean edo B taldean praktikan jarri, emaitza erabat desber-

dina izango da. Hau da, materialak ez daude isolaturik, beste zenbait elementu ere kontuan hartu behar dugu:



Horrela, irakasle berak euskaltegitik eskolara materialtxoa ekartzen duenean, ezinbestez zaindu beharreko beste faktoreak hor daude: testuingurua eta ikasleak.

Ikasleen ezaugarriak erabat desberdinak dira batean eta bestean, nahiz eta batzuetan berdín-berdín jokatu: beraien egoera pertsonala, giro soziala, parametro kulturalak, pertsonalitate faktoreak, herstura maila, adaptazio gaitasuna, heldutasuna, aurrezagutzak eta hauen egituraketa, garapen ebolutiboa, ikaslearen motibazio eta jarrerak... Testuingurua ere aldatzen da: irakasle-taldearen arteko harremanak materiala markatuko du, eta ikasleen arteko harremana ere bai.

Materiala, ariketak, bere horretan ez dira ez onak, ez txarrak; ikaslea eta taldea nolakoak diren, bere ezaugarriek, bere estrategiek, jarrerak, non lan egiten dugun, ikasketa-planak, helburuek... materialetan eragina izango dute.

Orain arteko hitzaldietan unitate, ataza edo proiektuez hitz egin dute. Helduen irakaskuntzan, gaur egun, atzak erabiltzen ditugu, baina ezinezkoa da bere horretan maila hauetara ekartzea, unitate hori osatzeko orduan ezaugarri propioak kontuan hartzen baitira. Hori dela eta, zenbait ariketa eta baliabide azalduko dizuet. Programazioetan ataza edo unitate baten barruan kokatuko genuke, baina hemen solte eta testuingururik gabe azalduko dizuet.

Ariketa hauen balioa aztertzeko, gure klasean aplikagarriak diren ala ez jakiteko, Ernesto Martin Perisek egindako gidatxo hau erabiltzen dugu. Bertan bost adierazle aztertzen dira:



- Eginkizuna.
- Emaiza.
- Egilea/eragilea.
- Hutsune komunikatiboa.
- Ikasleen inplikazio pertsonala.

*Eginkizuna* (zer lortu behar du ikasleak? zer da eskuetan geldituko zaiona?) ez da helburua (zer irakatsi nahi dugu honekin?). Adibidez, atzo graffitiarena aurkeztu zigutenean, proiektuaren eginkizuna garbi adierazi zuten: patioan graffiti bat egitea. Irakasleek klasera eramaten duten helburua ez da hori, baizik eta deskripzioak lantzea, konparazioak egitea... Hemendik lau urtetara ikasleek gogoan izango dute graffiti bat egin zutela, lortu zutena hori baita; baina guk ez diegu graffitiak egiten irakatsi, hizkuntza erabiltzen baizik.

Beste adibide bat jakiaren unitatean ikus dezakegu. Hartan puzzle bat osatu behar zuten. Ikaslearen eginkizuna da puzzlea osatzea, irudia egitea; gure helburua, aldiz, hitzak, hiztegia irakastea da. Horrela, saio bat programatzen ari garenean, helburu bera lan dezakegu behin eta berriro eginkizuna aldatzen badugu, ikaslearentzat astunegia izan gabe helburu bera sakonki aurkeztu.

*Emaizaz* ari bagara, ariketak ematen dituen aukerez ari gara. Izan daiteke bakarra eta itxia (erantzun bat bakarrik ontzat emango dugu; bai/ez moduko ariketa edo galdera itxiak: non dago Gasteiz?), desberdina eta itxia (aldez aurretik erantzun guztiak aurreikus ditzakegu: aukera anitzeko galderak –bat baino gehiago zuzen dagoenean– edo Arabako herriak izendatu) eta desberdina eta irekia (ezin dugu jakin zer erantzungo duten). Saioa programatzean komenigarria da aukera hauek guztiak ematea, eta beti bat baino gehiago erabiltzea.

*Egilea* atalean aztertzen dugu partehartzea nolakoa izango den: bakarka, binaka, hirunaka, taldeka. Saio batean komenigarria da taldekatze, biltze modu desberdinak egitea, lan batzuk bakarka, beste batzuk taldeka.

*Hutsune komunikatiboa*, eginkizunarekin batera, beti neurtu behar dugu-na da. Honetan aztertzen dugu ikasleari zer elementu falta zaion; adibidez, atzo, Bihotzak proposatzen zuenean “*ikasleak lan hori norentzat egin behar du?*”, sor dezakegu hutsune komunikatibo bat, ez baita gauza bera denen aurrean kontatu behar izatea, gure lagun bati esatea, edo gure koadernotxoan gordetzea. Erregistroaz gain, lan desberdina eskatu beharko diegu interesga-

rria izateko. Ikasleei irakasle baten deskripzioa eskatzen badiegu, norentzat horrek esango digu ariketa erakargarriagoa egiteko zer hutsune komunikati-boa sor dezakegun: guretzat egin behar badu eta denok bertako irakasleak ezagutzen baditugu, deskripzio hutsaz gain, beste zerbait eskatu beharko diogu, txapelketa moduan planteatu (nor da nor?). Gurasoei erakutsi behar badiete, zeregina desberdina izango da, edo eskolako aldizkarian azaltzeko egin behar baldin badu.

Hutsune hauek izan daitezke informazio objektiboak, iritzi subjektiboak, edo bietakoak; ikasleen artean gerta daitezke edo falta zaiena osatzeko irakaslearengana edo testu-liburuetara jo behar dute. Hurrengo jarduerak osatzeko, beharrezkoak edo osagarriak izan daitezke; adibidez, aditz zerrenda bat egitea proposatzen diegunean, ariketan bertan ez dago hutsunerik; guk aditzak ondo ezagutzen baditugu, zertarako kontatu behar digute guri? Hutsunea hurrengo ariketak sortzen digu: zerrendak praktikatzeko aukera ematen digu eta gero aplikatu beharko du.

Ikasleen *inplikazio pertsonala* ariketa batean aztertzen dugun azken elementua da. Garai batean askotan erabiltzen genituen A eta B fitxak, konparatu eta diferentziak aurkitu. Zertarako egin behar dute hori ikasleek? Ariketa hori egiteak zer ekartzen die ikasleei? Automata moduan egin dezakete, ezertxo ere pentsatu gabe. Inplikazio handiagoa izango dugu ariketak ikaslearen mundura jotzen badu, bere ezagutza eta aurrezagutza aktibatzea eskatzen badiegu, bere esperientziekin bat egin, eginkizuna lortzeko egileen ekarpen pertsonalaren bat beharrezkoa bada.

Azken finean, aztertzen ari gara ea ariketa batek motibatze balio digun. Euskaltegira etortzen den ikaslea, teoriarik, eskolara joaten dena baino askoz motibatuagoa dago, titulu bat lortu nahi duelako, edo lagunekin euskaraz hitz egin nahi duelako, edo Leitzako jaietan ligatu nahi duelako. Hala ere, egunez egun motibazio hori lantzen ez badugu, galdu egingo dugu. Epe luzeko motibazioak izena emateko balio du, ez egunerokoan aurrera jarraitzeko. Beraz, gure klaseetan motibazioa ere piztu behar dugu eta horretarako nik uste dut joko oso bide egokia dela. Joko diferente asko daude eta ia denak oso motibagarriak: joko linguistikoak (bingoa, errimak...) hizkuntzarekin jolasteko besterik ez dira, ondo pasatzea beste helbururik ez dute; joko komunikati-boekin gehiago ikasiko dute gure ikasleek (antzeztu, hitza asmatu) hizkuntza praktikatzeko aukera ematen digulako; eta aplikatzeko ariketak ere joko moduan aurkeztu ditzakegu, horrela beraiek entretenituago egongo dira eta konturatu gabe egingo dute. Adibidez, betiko aukera anitzeko galde-

rak zuzentzeko orduan txartelen bidez egiten badugu, banan-banan galdetu beharrean, ikasleengan tentsio puntua piztea lortuko dugu.

Materialekin hasi baino lehen, gauzatxo bat azpimarratu nahi nuke: azken bolada honetan euskaltegien munduan autoikaskuntza sisteman murgildu gara eta horretan ari gara buru-belarri. Honen inplikazioak desberdinak dira: alde batetik, irakasleok gure betiko rola galdu dugu, berri bat bilatzeko. Eta bilatzeko diot, oraindik aurkitu ez dugulako. Ingeleseztan geure lana era desberdinetan izendatzen da (facilitator, mentor, counsellor, adviser, helper, learner support, officer,...), eta bakoitzak badu bere esanahi semantiko desberdina. Hau da, zerbait berri sortzen ari da eta ez dakigu zer izen eman. Euskaraz ere, autoikaskuntzan ari garenok ez dakigu zer garen: laguntzaileak, tutoreak, aholkulariak...

Beste aldetik, zer esanik ez, materialgintzan eragin nabarmena du, eta egiteko moduak aldatzen ari gara. Erabat autoikaskuntzarako zuzendutako materialetan sartuko ez bagara ere, honen eragina ikusiko duzue.

Argitaratuta dagoen materialaren artean euskaltegi handienak eta HABE dira ekoizpen handiena izan dutena. HABEk aspalditik eta momentuko korronte pedagogikoen arabera material desberdinak plazaratu ditu. Garai batean, behe urratsetako material osatuena zeukaten merkatuan, baina karpeta berde horiek nahiko defasatuak gelditu dira.

Duela 4 urte curriculum berria argitaratu zuen "Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculuma" (Urrutiko Hizkuntza Eskolakoek lehen azaldu digutena) eta horren haritik atazak argitaratu dira, material egokitua eta prestatua, programazioa eta curriculum aurrera eramateko unitateak. Gure mundu txiki honetan iraultza txiki bat izan zen, bai egin zen lanean, bai aurkezteko moduan, bai jendea inplikatzeko momentuan. Pausuz pausu, HABEk Barrene, Barrenet... argitaratu ondoren, hauen atzean dagoen filosofia irakasleei azaldu zien eta azkenik, beraiek berriak egitea proposatu. Material hau ere kaleratu da, eta zenbait unitate Interneten topa dezakegu. Erakargarria da guk geuk egin ditugulako, geure eskarmentutik abiatuta, eta adituek gainbegiratu dutelako, hausnartzeko bidea ematen. Ez dut uste Lehen edo Bigarren hezkuntzan aplikagarriak direnik bere osotasunean; agian, ariketa batzuk edo dauden ideiak bai. *Solasean Jolasean* bada horietako bat, gurasoei zuzenduta. Honen helburua da ipuinak nola kontatu garatzea.

IKAk arrakasta handia izan zuten liburuak argitaratu zituen: *Ikasleen liburua 1, 2, 3, 4, 5 eta 6* eta *Esaera zaharrak*. Ariketa analitiko osatuta daude eta autoikaskuntzarako bidea ireki nahi zuten. Antzeko materialak dira *Ki-*

*metz* edo *Berbetan*, Bizkaiko euskaltegiek argitaratuak. Autoikaskuntzarako ukitu hori ez dute eta zailagoa da klasean erabiltzea.

AEK-k aspaldian *Hitzetik Hortzera* liburu sorta egin zuen, eta ondoren *Ahoz aho*. Bietan ariketa desberdinak topa ditzakegu, proposamen politik, baina nahiko zaharkituta (esate baterako, bideo-sekuentzietan Klaudio Landa azaltzen da, famatua izan baino lehen). *Talde dinamika* eta *Urraspide* aldizkariak ere argitaratzen zituen, eta klase dinamikarako ideiak eta proposamen asko plazaratzen zuen.

*Bakarka* liburuak aspalditik daude gure apaletan eta azken bolada honetan berrindartu dira, autoikaskuntzarako erabat zuzenduta daukagun inprimatutako material bakarra delako. Argitalpen berriak egin dituzte, baina betiko metodologia dago horien atzean. Nire ustez, ez da oso material egokia, baina ikasleari nolabaiteko euskarria eta lasaitasuna ematen dio.

Jokoak eta proposamen desberdinak biltzen dituzten beste argitalpen batzuk ere izan dira. *Mintzapraktikarako jokoak* liburuan jokoak daude, binaka edo taldeka egiteko. Ingelesa ikasteko sortu zuten, duela urte batzuk euskartatu zuten eta ondo zabaldu zen. Akats bat badute, hutsune komunikatiborik ez baitago ariketa hauetan eta, horrexegatik, ez dira klasean ondo ateratzen; gelara eramane nahi baditugu, beste zerbait bilatu behar diegu. *Joko bilduma* AEK-k argitaratu zuen eta, aurrekoaren ildotik, klasera eramateko jolasak topatuko ditugu.

*Idazketa ikasgelan* liburua lortzea nahiko zaila da, baina liburutegietan egoten da. Urrats altuetan idazlanak egiteko proposamen bereziak dira eta batzuk aprobe txatu daitezke beste mailetan aplikatzeko; adibidez, badago bat niri asko gustatzen zaidana, *Esan ezazu bost hitzetan* izenekoa: bost hitzeko idazlana egitea du helburu. Ikasleak taldeka biltzen dira eta bost hitzetako esaldi bat erabiliz zerbait idaztea proposatzen diegu, adibidez, ohar bat: “beste gelako batek gonbidatu zaitu bere urtebetetzera, ez duzu batere gogorik joateko, esaiotzu bost hitzetan”. Sortze prozesua nahiko eroa, bitxia eta interesgarria da: “sobratzen da bat, hau jarritz ez dago ondo...”. Emaitzak denetatik izaten dira “Oso gaixo nago. Bihar arte”. Azkeneko emaitza ez da oso luzea, baina prozesua oso aberatsa izaten da. Beste aukera batzuk izan daitezke amodiozko eskutitza, sakelako telefonoz mezu bat, mehatxu bat...

Klaseetan erabilera handiko beste liburuak kontsulta liburuak eta irakurtzekoak dira. *Gramática didáctica del euskara* azkeneko urteotan ikasleen “biblia” bihurtu da edo dugu, nola kontsultatu eta nola erabili irakastea gure helburuetako bat izan baita. Irakurtzekoen artean, betiko *Irakurmendi* bilduma aurkitzen dugu, gauza handirik ez dira, baina ez dago beste ezer behe-mailetan.

Eta material hau guztia biltzen ari nintzela konturatu nintzen argitaratu dagoen gehiena oso zaharra dela. Bi arrazoi nagusi daude horretarako: azken urte hauetan, materialgintzan egin den esfortzurik handiena atazak sortzeko izan da eta, lehen aipatu dugun bezala, hauek zailak dira bere horretan beste mailetan aplikatzen; edo bestelako materiala sortzen ari gara, multimedia formatuan, CD-rometan aurkituko duzuen, edo beste gauzatxo batzuk Interneten. Adibidez, euskaltegiako autoikaskuntza geletan *Hezinet* (lehengo bertsioa) edo *Boga* (bigarrena) erabiltzen dugu, Helduen irakaskuntzarako mila eta piko ordu jasotzen duena. Programa handia bada ere, ez du merezi eskoletara eramatea: ariketak ezin dira banaka aukeratu, unitateetan integratuta baitaude eta gauzak aldatzeko aukerarik ez dagoelako.

CDtan lan solteak aurkituko ditugu; errazago lor daitezke, eta gehienak ez dira oso garestiak. CD bat klasera eramaten dugunean edo saioan Internet erabili behar dugunean, oso inportantea da alde zurretik material hori aztertzea eta galdera hauei erantzuna ematea:

- Zer lortu nahi du materialak?
- Guk zer lortu nahi dugu material horrekin?
- Zer egin behar du ikasleak?
- Motibagarria da ikaslearentzat?
- Ikuspegi didaktikoa egokia da edo beste bat eman behar diogu?

*Bai noski* eta *Irakaslea I* eta *II* behe urratsetan ikasteko ariketa multzoak dira, nahiko desfasatuak, baina errepositorako baliagarriak dira. *Ikastira* urrats altuetarako zuzenduta dago, arauak, esaerak eta hiztegi bereziak biltzen ditu. Gauza batzuk ikasleei grazia handia egiten die eta, momentu konkretu batean, guk geuk jartzen badiegu zertarako nahi dugun, erabili dezakegu. Adibidez, DBHn lan egiten baduzue *Irainak eta beste* eta horrelako hiztegi bereziek aukera handiak ematen dituzte, edo *Baserriko tresnak* edo *Onomatopeiak*. CD honetan ez dago ariketarik, jolas batzuk izan ezik. Unitate baterako informazioa lortzeko erabili dezakegu edo zerbaitetarako eskatu.

*Egunez egun, esaldiz esaldi* HABEk argitaratu duen agenda bat da eta osagarri moduan orain aurkezten dizuedan CD dago, bi atal nagusi dituena: egutegian 365 oinarrizko esaldi euskaraz badaude, oso ximpleak: “Egun on”, “Arratsalde on” eta horrelako esaerak. *Hiztegia iruditan* oinarrizko hiztegia ikasteko irudiak daude, garai batean horma-irudietan zeudenak: animaliak, barazkiak, familia, jantziak, hondartza, mendia, ordua... Bakoitzaren barruan bi gune daude: “Hitzak ikusi” edo “Hitzak kokatu”. Material polita da eta geletara eramateko oso erraza. Horrelako materialekin lan egiten dugunean

ere ez dugu ahaztu behar saio hauen bukaeran laburbiltzeko lan bat eskatzea, paperean ariketa bat, etxerako lan bat...

Bestelako lanetarako ere informatikaz baliatzen gara. *Xuxen* eta *Word* programak ezinbestekoak izan daitezke idazlanak egiteko orduan. Gaur egun ordenagailua zuzentzaile ortografikoarekin erosten dugu, baina zaharra bada instalatu beharko dugu. Erraza da eta dohainik aurkitu daiteke Interneten ([http://www1.euskadi.net/euskara\\_hizt/indice\\_e.htm](http://www1.euskadi.net/euskara_hizt/indice_e.htm)). Idazlan bat zuzentzea lan deprimigarria izaten da: azpimarratu egiten dugu zuzendu beharrekoa eta ideiak alboetan jarri, bestelako proposamenak bukaeran, liburuetan begiratzeko eta hobetzeko klabeak, geziez betetzen dugu... Testua ikasleari bueltatu eta horretatik emaitza polit bat lor dezakeela uste dugunean, nota galdetzen digute: ez dute besterik begiraten eta ez dute inongo interesik lana berregiteko. *Xuxen*-ekin lan egiten badute, bukatutzat eman baino lehen ortografia atala zuzenduta izango dugu, eta lan bat gutxiago izateaz gain, lanean ari diren momentuan ohartuko dira gaizki ari direla. Momentuko zuzenketak informazio gehiago ematen dio eta azken produktua eduki baino lehen aldatzeko aukera eskaintzen dio. Gutxi batzuk salbu, beraiek ez dute begiratuko irakasleak egindako zuzenketa, zer azpimarratu duen, baina ordenagailuak azpimarratzen dionean, esaten dionean "Hau gaizki dago", orduan erantzuna bilatzen saiatuko dira.

Beste tresna erabilgarria *Hot potatoes* (patata beroa) programatxoa da. Josu Jimenezek esplikatu dizue programatxo bat, *Klik*, eta hemen duzue beste bat. Hau ere oso erraza da erabiltzea. *Klikek* baino aukera gutxiago du, baina lortzen dugun ariketa web formatuan izango dugu, ordenagailu guztietatik ikusteko moduan, ez da beharrezkoa beste aplikazio bat ezartzea. Adibidez: Santurtziko Udal Euskaltegikoek ([http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/iniciacion/ataria.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/iniciacion/ataria.htm)) ereduak ematen dizkigute zer egin dezakegun ikusteko. Aukera asko ditu, eta, benetan, oso erraza da erabiltzen: bi ordutan ikasten da erabilera eta Internetetik ere jaitsi daiteke dohainik. Beste euskaltegietako web orrietan ariketa asko topatuko dituzue, gehienetan formatu honetan eginak.

Dena dela, gaur egun euskaltegietako irakasleok gehien erabiltzen duguna HABEko web orria da. Gauza asko bildu dute eta, konexioa ona ez bada, denbora luze pasa dezakezue zerbait interesgarria ikusteko, hala ere, merezi du. Hiru gune nagusi daude: lehenengoa, "Aurkezpena" edo "Erabilera orokorrak", bigarrena da "Ikaslearen gunea" eta hirugarrena "Irakaslearen gunea".

Lehenengo multzo horretatik "liburutegia" eta "zerbitzuak" atalez hitz egin nahi nuke. HABEko liburutegia Donostian dago, baina katalogoa *online* dute jarria eta oso erraza da begiratzeko. Bilatzeko bi aukera dugu: arti-

kuluak, Artikuluen Datu-Base Dokumentala (ADBD), edo liburuak, beste liburutegi askok egiten duten moduan Absys sisteman. Askotan liburuak bertan bilatzen ditut, ez hara joateko asmoa dudalako, baizik eta gure gaian espezializatutako liburutegia denez, ale asko daude eta erreferentziak bilatzeko oso toki ona delako, arloan dauden baliabideak zabaltzeko. Gustatzen zaidan liburu bat topatzen dudanean, programan erreferentzia sartzen dut eta erreferentzia horren bidez, beste batzuk topatzen ditut, ondoren hurbileko liburutegietan bilatzeko. Aurkitzen ez badut, betiere posible da korreoz eskatzea eta bizpahiru egunetan bidaltzen dute. Buelatzeko epea hilabetekoa da eta, beste inork eskatuko ez balu, luzatu daiteke beste hainbeste. Zerbitzu hau oso jende gutxik erabiltzen du eta liburu guztiak ia beti daude eskuragai.

*Zerbitzuak* atalean *hemeroteka* aurkituko dugu, HABEk argitaratutako material didaktikoa aurkituko duzue: *Habeko mik*, *Habe aldizkaria*, *Unescoren albistaria*, eta *Habe aldizkari elektronikoa*. Ikusiko dugun bezala, hauetara beste bideetatik ere ailegatu daitezke. Zutabe/Hizpide aldizkariaren inprimatu daitezkeen didaktikako artikulua zaharrak bilatzeko oso baliagarria da.

Bigarren atal nagusian, *ikaslearen gunean* ([http://www.habe.org/ikaslearen-gunea/index\\_e.asp](http://www.habe.org/ikaslearen-gunea/index_e.asp)), material asko aurkituko dugu. Alde batetik, alfabetatzeko *Murgilduz* dago. Garai batean liburuak izan zen, bai materiala eguneratu eta sarean jarri dute. Unitateak eta ariketak daude, baina behe urratsetarako zailak dira. Shockwawen eginak daude eta, ordenagailuan ez baduzue, alde aurretik Internetetik jaitsi behar duzue; zer egin behar duzuen ariketak berak esango dizue. Unitateka zatituta dago eta irakurgaiak, ariketak, entzungaiak tartekatzen ditu.

*Habeko mik* garai batean HABEk argitaratu zuen komiki bilduma Interneten jarri du orain, denon eskura. PDFn dago, eta komiki osoa eskuratzeko konexio ona behar da. Formatu horrek duen abantaila da inprimatzeko arazorik ematen ez duela.

*HABE aldizkaria* ere, alez ale, PDF formatuan edo web formatuan aurkituko dugu, hala nola *Unescoren Albistaria*. Aldizkari elektronikoa paperezkoaren ahaidea da: han artikulua atera dira noizbait, baina hemen proposamen didaktikoak daude. Ez dira oso errazak izaten eta autoikaskuntzarako bideratuta daude.

*Euskara hobetzen* (esaerak eta esapideak, Euskaltzaindiaren azken arauak, euskara hobetzeko oharrak), *Euskalkiak* edo *Irrati nobelak* aurretik CD formatuan argitaratutako materiala da edo irratiaren entzundakoa. Goi mailetarako interesgarria da, ez, ordea, gure mailetan. Lehenengo biak geure euskara hobetzeko erabil ditzakegu.

*Denborapasak* egiteko shockwave erabili dute. Programa honek eskaintzen dituen aukera guztiak erabili dituzte: gurutzegramak, hitz dorreak, itxuraldaketak, zaldiko-maldiko, letra zopak, dominoak eta ezkutuko mezuak topatuko ditugu. Ariketa egin ondoren, aukerak ematen ditu: erabat zuzendu edo egindakoa zuzendu.

*Txisteak, Ipuinak, Istorio animatuak* entzungaiak egiteko aukera ematen digute. Transkripzioa bertan dago eta, aldi berean, entzun eta irakur daitezke. *Postalak* politak dira, Interneten dauden beste hainbeste postal bezalaxe, baina euskaraz; soinua eta guzti dute, eta ikasleen artean trukatzeko badituzte, idazki motzak egiteko aukera ematen digu, jolasteko. *Kantu-kantari* ikasleen gustukoa izaten da: kanta tradizional batzuk bildu dituzte eta bi erataro aurkezten dira: ahotsarekin edo musika bakarrik, karaoke moduko bat egin ahal izateko.

Azken atal nagusia *Irakaslearen gunea* da. Hemen sartzeko pasahitza behar da. Hau lortzeko galdetegi bat bete ondoren bidaliko digute. *Agendan* HABEk antolatzen dituen ikastaroen berri izan dezakegu. Kanpotik ekarritako espezialistak izaten dira eta bizpahiru egunetan jarduten dira gai baten inguruan. Ikastaro gehienak ekainean, uztailean eta irailean izaten dira. *Prestakuntza* arloan, beste gauzen artean, aldizkari teknikoak aurki eta kontsulta ditzakegu. Kurtsoan zehar ikastaroak *on-line* antolatzen dira eta horretarako erabilgarriak dira beste atal batzuk: *postontzia, ikastaroak., gelak, taldeak...*

Dena dela gehien erabiltzen dugun atala *Mediateka* da, eta, zuentzat ere interesgarria izango dela uste dut. Loturak, ikas-materialak, aldizkariak... daude eta horrez gain *Baliabideak*. Hemen helduak euskalduntzeko curriculum HTML formatuan osorik eskura dezakegu. *Fototekan* argazki bilduma aurkituko dugu, baina beste bilatzaileenetan ez bezala, norbaitek kategoriak ondo sailkatzeko lana hartu du, eta gure materiala argazki batekin hornitu behar dugunean zer nahi dugun garbi badugu, berehala topatuko dugu.

*Dokumentu biltegia* (<http://www.habe.org/dokumentubiltegia>) gaur egun gehien erabiltzen dugun web orria da. Testuen banku bat da eta material erreala modu diferenteetan sailkatuta dago; badaude entzutekoak, bideoak, testu idatziak eta ariketak. Bideoak izan ezik, beste guztiak saretik har ditzakegu. Irizpide desberdinak erabiltzen ditugu bilaketa egiteko: hitz gakoak, noiz argitaratua, maila, testu mota, euskalkiak, hitz kopurua... Ezinbesteko tresna bihurtu da gure eguneroko lanean.

Askotan kontsultatzen ditugun beste web orriak honako hauek izaten dira: [www.ivap.org](http://www.ivap.org), [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net), [hiztegiak...](http://hiztegiak...)



Beste helbide batzuk badaude, baina lan puntualak egiteko besterik ez digute balio, adibidez, *altxorragen bila* jokoa. Horretarako, beste hizkuntzetan dauden web orriak erabili ditzakegu, edo euskara eta gaztelania erabiltzen dutenak. El Correoren gunean oraindik zintzilik dituzte aspaldian ateratako fitxa batzuk: <http://www.diario-elcorreo.es/euskera/> eta errepasso egiteko balio dute.

Interneten nabigatzen ari garenean jokaera arrunta zein den kontuan hartu behar dugu: toki batetik bestera joatea, inon denbora gehiegi gelditu gabe, markatutako bidetik oso erraz alde egiten dugu eta askotan galtzen gara, zerbaiten bila joan eta beste puntan bukatu. Ikasleek ere horrela jokatzen dute. Hori ez gertatzeko, hasieratik esan behar diegu zer egin behar duten, zer bilatu behar duten, helburuak eta eginkizunak garbi izan behar dituzte. Horrez gain, kontuan hartu behar dugu ariketa batek hamar minutu baino gehiago irauten badu, ikaslea galduko dela. Beraz, Informatika gelara joan behar badugu, ariketa asko eta motzak prestatu beharko ditugu. Ume txikiak baldin badira, ariketa bakoitzeko bi helbide baino gehiago ez eman, nahi dugun horretan arreta mantentzeko. DBHn baldin bada, bospasei batera erabili ditzakegu, gehiago ez, bestela galdu egiten dira eta. Ahaztu behar ez dugun beste puntu bat da helbide elektronikoak askotan aldatzen direla. Norbaitek ematen badigu proposamen bat, aldeztatik gauzak hor mantentzen direla ziurtatzea komenigarria izaten da.

Ariketak egiteko proposamenak bilatzeko Cervantes institutuaren tokia baligarria da. Gauza asko daude, baina nik azpimarratuko nuke *Didactiteca*. Ariketa sorta bat da, batzuk Internetekin lotuta daude, beste batzuk klasean aplikatzeko, noizentzat egokituta dagoen aipatzen du: “Jóvenes”, “Adultos”, “Nivel”... Batzuk gurera moldatzeko oso errazak dira; beste batzuk ez. Egunero argitaratzen dute baten bat. Beraz, noiz edo noiz joaten bagara eta gus-tatzen zaizkigunak gordetzen baditugu, artxibo on bat lortuko dugu.

Bukatzekeo *txat*-a aipatu behar dut. Berez, komunikatzeko sortu “berri” den tresna hau, nahiz eta idatziz egin, ahozko hizkuntzaren parekoa da. Ikasle gehienek ezagutzen dute eta noiz edo noiz ibiliak dira. Honetan sartzen direnean, bat-batekotasunak agintzen du, zaila da kontrolatzea; baina, batzuetan, aukera dugu esandakoa gordetzeko eta inprimatzeko. Jokotxo bat proposatu diezaiekegu: bakoitzak izengoiti bat hartuko du, eta besteek *nor da nor* aurkitu behar dute galderen bidez. Txatean sartzen garen lehenengo aldiz nahiko kaotikoa izaten da dena, baina idatzitakoa/esandakoa inprimatzen badugu eta hurrengo egunean aztertzekeo klasera eramaten badugu, hurrengo aldiz tentu gehiagorekin ibiliko dira, eta jartzen dutena gehiago zainduko dute.

## Bibliografia

- DUDENEY, Gavin (2000): *The Internet and the Language Classroom*, Cambridge Handbooks for Language Teachers, Cambridge.
- HABE (1999): *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum*, HABE, Donostia.
- MARTIN PERIS, Ernesto (1996): *Las actividades de aprendizaje en los manuales para la enseñanza de E/LE*. Argitaratu gabeko tesia.
- SUSO LÓPEZ, Javier; FERNÁNDEZ FRAILE, M<sup>a</sup> Eugenia (2001): *La didáctica de la lengua extranjera. Fundamentos teóricos y análisis del curriculum de lengua extranjera*, Editorial Comares (Interlingua), Granada.
- WILLIAMS, Marion; BURDEN, Robert L. (1999): *Psicología para profesores de idiomas*, Cambridge University Press.

## Materialak

- AEK, *Ahoz aho, Hitzetik Hortzera, Joko bilduma, Urraspide aldizkaria*.
- ARESTI, B.G.: *Berriketan, Berbetan, Edan, Eutsi*.
- BASURTO, Aitor (1994): *Idazketa Ikasgelan*, Abegi Kultur Elkarte, Lizarra.
- ESNAL, Pello (1984): *Euskalduntzearen A mailarako langaiak*, HABE, Donostia.
- HABE: *Bai Horixe* (bideokasetak).
- HADFIELD, J.: *Mintzapraktikarako jokoak (hasierako mailakoak)*, Elhuyar.
- IKA: *Hitzetik Hortzera*.
- Irakurmendi bilduma*.
- LETAMENDIA, J.A.: *Bakarka*.
- ZABALA, Ion; IRIONDO, Asis; ALDAMA, Dabid (1993): *Esaera zuhur eta zahar*, Ardatz Kultur Elkarte (IKA), Gasteiz.
- ZABALA, J.M.: *Kimetz*.
- ZUBURI, Ilari (1991): *Gramática didáctica del euskara*, Didaktiker, Bilbo.

## Helbide elektronikoak

### Bestelakoak:

- <http://www.hiru.com>
- [http://www.euskadi.net/euskara/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/euskara/indice_e.htm)
- <http://www2.euskaltzaindia.net/>
- [http://www.ivap.org/eusk/menu\\_eus.htm](http://www.ivap.org/eusk/menu_eus.htm)

*Cervantes institutua:*

<http://cvc.cervantes.es/>

*Didactiteca:*

<http://cvc.cervantes.es/aula/didactiteca/apartados.asp>

*Dokumentu biltegia:*

[http://www1.habe.org/kapsula/bmhasi\\_e.htm](http://www1.habe.org/kapsula/bmhasi_e.htm)

*Euskaltegi batzuen ariketak:*

<http://www.hator.com/herria.htm>

[http://www.santurtzieus.com/gela\\_irekia/materialak/ikastaro/iniciacion/ataria.htm](http://www.santurtzieus.com/gela_irekia/materialak/ikastaro/iniciacion/ataria.htm)

<http://www.abegi.com/euskariketak.asp>

*HABE:*

<http://www.habe.org/>

*Hot Potatoes:*

<http://web.uvic.ca/hrd/hotpot/>

*Oinarrizko euskara ikasteko ikastarotxoak:*

[http://www.gure-irratia.com/cours\\_esk.asp](http://www.gure-irratia.com/cours_esk.asp)

<http://www.eirelink.com/alanking/basquep.htm> (ingelesez)

<http://anseo.free.fr/basque.html> (frantsesez)

<http://www.geocities.com/aprendereuskera/> (gaztelaniaz)

<http://www.diario-elcorreo.es/euskera/> (gaztelaniaz)

*Ume txikiekin erabiltzeko:*

<http://www.txikiak.com/bienvenida.html>

<http://www.komunika.net/txikinet/index.htm>

*Xuxen:*

<http://www.sc.ehu.es/xuxen-e.htm>

Komunikazioak

# PANPINERAKO JANTZIAK

*Begoña MITXEO / Feli ALEMAN / Mainer IKARAN / Mikel OLAIZOLA*  
A ereduko irakasleak

## Proiektua

Haurrentzat gertukoa den gai bat aukeratu nahi genuen, komunikatzerako orduan errezagoa baita haurrentzat haiek ezagutzen duten zerbait beste hizkuntza batean ekoiztea.

Beste alde batetik, egunerokotasunarekin lotuta zegoen gaia nahi genuen, honek lantzeko aukera zabala eskaintzen baitu.



Horregatik JANTZIAK gaia aukeratu genuen, baina gaia hau zabala izan daiteke, ikuspuntu ezberdinak uki daitezkenak:

- Ihauteriak; bertan pertsonaia bereziak daude, jantzi bereziekin ere.
- Kultura; kultura ezberdinetan erabiltzen diren jantzi tipikoak.
- Urtaroak; sasoi ezberdinetako jantziak.

Dena lantzea ezinezkoa zenez, sasoi ezberdinatako arropetan zentratzea erabaki genuen.

## Prozedura

Lehen esan dugun bezala haur hezkuntzarako proiektua da, 3. mailakotzat hain zuzen ere.

Proiektuaren azken xedea honako hau litzateke: Panpina sortu, sasoi ezberdinetako arropak ezagutu eta panpinarentzat egin.

Azken xede hau lortzeko ariketa ezberdinak egin genituen, beti ere gure panpinarentzat arropak egitearekin tartekatuz. Labur-labur azalduko dugu zer egin genuen:

- Hasteko panpina bera egin genuen, honela gorputz atalak erreparatu.
- Haur Hezkuntzan, dakizuenez, “errutinak” egunero egiten diren ariketa laburrak dira, gure kasuan errutina bat aukeratu genuen: Kartulina batean bertikalean arropa ezberdin askoren marrazkitxo txikiak zeuden (fitxatxoak) eta horizontalean gelako haur guztien izenak. Egunero makinista den haurrak berak egun horretan daraman arropetako fitxatxoak hartu eta esaldi batzuen bitartez izendatu (gantzontziloa daramat, prakak daramazkit...) behar zuen. Honela gelako haur guztiek egin arte, formula bera erabiliz.
- Arropa guztien fitxa txikiak erabili genituen hainbat eta hainbat ariketa egiteko. Guztien artean bat aipatuko dugu, haurrek gustokoa zutena: ikusi-makusi. Denak alfonbran borobilean eserita egongo dira eta erdian fitxak daude. Haur batek fitxa bat pentsatzen du eta jokua hasten da, haurrak “ikusi makusi” esaten du eta gainontzekoek “zer ikusi?”, Haurrak “gauza bat hasten dena...” eta fitxa batetako lehenengo letra esan behar du, datu horrekin gainontzekoek ze fitxa den asmatu beharko dutelarik.
- Kantak eta jokua ere egin genituen: *astoa ikusi nuen, izeba Pantxika, basoaren erdian...*
- Gaiarekin erlazionatuta dagoen ipuin bat landu genuen “Egoitz gaixotu da”.
- Bukaeran, ebaluaketa moduan bi ariketa planteatu genituen, bata, moda desfile bat, bertan arropa desberdinak izendatzen eta deskribatzen dituzten ikusi nahi da, bestea, egindako panpinak jantzi emandako aginduak jarraituz, oraingo honetan arropak desberdinak identifikatzen dituzten eta sasoi ezberdinak bereizten dituzten jakin nahi genuen.

## Esperientziaren balorazioa

Ikasleei dagokienez, hasieratik helburu bat zehaztuta izatea oso garrantzitsua da, honela lehenengo momentutik badakite zer egin behar duten eta

zertarako. Hau jakinda haurrak motibatuagoak egongo dira egin behar den helburua lortzeko.

Bukaeran beraiek egindako produkto bat ikustea ikasleentzat onuragarria da, beraien lan guztiaren emaitza ikusten baitute bertan.

Ariketa batzuk egiterako orduan taldekako lana egin behar zuten ikasleek, eta honek ez du oso ongi funtzionatu. Ikasleak ez daude ohituta taldeka lan egitera, garai honetan haurrak nahiko egoztristak dira eta beren lana (bakarkako lana) egitera soilik mugatzen dira. Egia esan irakasleok ere ez dakigu oso ongi funtzionatzen modu honetan, beraz, landu behar den aspektu bat da taldekako lana.

Gaiaren ulermen mailari dagokionez, ikasleek ulertu eta bereganatu dute gaiaren inguruko hiztegia eta erabili ditugun estruktura guztiak, baina guzti hau ekoizterako orduan zailtasun handiagoa egon da. Ikasleen arabera ere aldaketak egon dira, batzuek primeran ekoizten zuten dena, beste batzuei ordea, gehiago kostatzen zitzaien, baina denak izugarri saiatzen ziren ikasitakoa euskaraz esaten.

Irakasleentzat berriz, oso positiboa izan da lan guztia prestatuta egotea lehenagotik. Eguneroko lanean asko errazten du dena egingo gotea.

## ANTZINAKO TRESNERIA

*Maria MENDAZONA / Maite GARCIA / Iratxe ANTON*

A ereduko irakasleak

### Gaiaren aukeraketa

- Asko kostatu zitzaigun gaia aukeratzea, zerbait berria eta motibagarria nahi baikenuen.
- Erriberako herrietan historia aberatsa dagoenez, haurrak, tresneriaren bidez, iraganari gerturatzeko eta gaiarekiko sentsibilitatea lortzeko.
- Beren gauzak edo objektuak izateak ere, hurrei garrantzitsu sentiarazten die eta lana ondo egiteko gogoia ematen.



### Proiektuaren aurkezpena

- Norentzat: A ereduko 5. mailako ikasleentzat
- Azken xedea: Antzinako objektuen erakusketa bat egitea, etxetik ekarritako objektuekin eta klasean, lan prozesu baten ondoren, ekoiztutako fitxa deskriptiboekin.
- Zer egin behar dute? Objektuen deskribapena egin eta erakutsi.
- Nola? Idatziz.
- Norentzat? Ikusi nahi dutenentzat (beste ikasleentzat, irakasleentzat, gurasoentzat, herriko jendearentzat e.a.).



## Proiektuaren zehaztapenak

1. Aurrezagutzak atera “idei bonbardaketa”ren bidez eta arbelan idatzi.
  - Zer egingo dugun azalduko zaie.
  - Zer ikasiko dugun azalduko zaie.
  - Ereduak erakutsiko dizkiegu (objektuak + deskribapen fitxak). Ad:

Hau plantxa da. XIX. mendekoa da. Txikia eta oso gogorra da. Punta, hiruki formakoa da eta egurreko euskarri bat du. Plantxa burdinazkoa da. Nire arbasoena da. Baserrian aurkitu dut, tximiniaren ondoan. Arropak lisatzeko balio du.

2. Informazioa nondik lortu?
  - Haurrek etxean beren senideei (gurasoei, aiton-amonei...) galderak egin ez lortuko dute informazioa, baita, liburu eta aldizkarietan bilatzen ere.
3. Eduki gramatikalak:
  - Proiektu honen bidez, testu deskriptiboa landu nahi da (objektu baten deskribapena, hain zuzen) eta testu deskriptibo ezberdinak erakutsiko zaizkie:
    - 2 pertsonaren deskribapena, 2 lekuren deskribapena eta 2 objekturen deskribapena.
4. Interakzioa eta taldekatzea:
  - Interakzioa irakasle eta ikasleen artekoa eta ikasleen artekoa izango da. Jarduerak taldeka zein banaka burutuko dira.
5. Hizkuntz gaitasunak:
  - Umeen ekoizpen modua gehien bat idatzita izango da. Hala ere, gelan, lan prozesuan zehar ahozkotetasuna landuko da (ad: zorro batek objektu bat atera, begiak itxita dituztelarik, eta ozenki deskribatu behar dute norbaitek zer den asmatu arte). Entzumena ere zenbait jardueratan landuko da. Azkenik, testuekin harreman zuzenari esker irakurmena lantzen da.
6. Edukinen barneraketa:
  - Gramatika kontzeptuak fitxa ezberdinen bidez barneratuko dituzte. Kontzeptu ezberdinak ezagunak dituztenean, lehenik modu eskematiko batean (zenbait galderari erantzuna emanaz), eta ondoren kohesio gehiago daukan modu jarraian, deskribatuko dituzte etxetik ekarritako objektuak.

## 7. Material lagungarriak:

- Deskribapenen adjektibo ugariak lantzeko, irudiak izango dira laguntzarik handiena.
- Batzutan euskarri gisa, hitz berriak ikasteko, eta jadanik ezagunak direnean hiztegi edo kontsulta liburu moduan klasean geldituko den liburuxka bat osatuko dute irudiekin.

## 8. Egitura amankomuna:

- Landutako edozein testuren egitura ekoizteko eskatzen zaienaren berdintsua da. Urratsen errepikapenaren bidez, barneraketa askoz errazagoa baita. Informazio atalak bereizten dituzte urrats edo zati hauek:
  - Zer da?
  - Nolakoa da?
  - Zerezkoa da?
  - Norena da?
  - Non aurkitu duzu?
  - Zertarako balio du?

## 9. Atalak:

- Ereduaren azterketa
- Elementuen identifikazioa (3. saioan)
- Elementuak (edukiak) landu (4. saiotik 7. saiora arte)
- Edukien ekoizpen eskematikoa (8. eta 9. saioetan)
- Testuen ekoizpena (8. eta 10. saioetan)
- Erakusketaren antolaketa: erabakiak hartu, eginbeharrak banatu... (10. saiotik aurrera). Honelako txarteltxo bat banatuko zaio bakoitzari klasean hartutako erabakiekin osatzeko:

**Erakusketaren antolaketa**

Erakusketa gela izango da: \_\_\_\_\_

Erakusketa gela hornituko dute: \_\_\_\_\_

Apaingarriak egingo dituzte: \_\_\_\_\_

Gonbidapen txartelak egingo dituzte: \_\_\_\_\_

Erakusketaren iragarki kartelak: \_\_\_\_\_ ren eskuz

Musika arduraduna: \_\_\_\_\_ izango da

Argazkiak: \_\_\_\_\_ aterako ditu

- Ebaluaketa burutzen da (13. saioan) bai edukiei dagokiona, bai lan prozesuari buruzkoa eta baita erakusketarena.
- Xedearen egiaztatzea argazkien erakusketaren bidez lortzen da (13. saioan).

#### 10. Baliabideak:

- Aurrezagutzak.
- Etxean lortutako informazioa.
- Mapa kontzeptuala.
- Hormirudia.
- Objektuen ereduak.
- Testu deskriptiboen eredu ugari (haiekin puzzleak osatzeko).
- Ahozko testua (munstro baten deskribapena).
- Euskarriak (adjetiboak eta hiztegia ikasteko).
- Kontsulta liburuxka.
- Erakusketa gela.
- Gonbidaketa txartelak.
- Apaingarriak.
- Musika aparatua eta argazki kamera.
- Gonbidatuentzako inkestak.
- Lanaren ebaluaketa fitxak.
- Argazkien hormirudia.

### Ebaluaketa

Irakasleak ebaluatzen dituen edukiez gain (edukinen barneraketa, hauen erabilera, lan taldeko lana, bakarkako lana, besteen lanekiko jarrera, proiektuarekiko jarrera e.a.) ikasleek ere ebaluatuko dituzte zenbait arlo: edukiak zailak edo errazak izan diren, lan prozesua azkarra edo motela izan den, lanaren antolaketa ona edo txarra izan den, erakusketa gustatu zaien edo ez, gaia gustatu zaien edo ez, bakarkako eta taldeko lana nolakoa izan den, e.a.

# ZUHAITZEN FITXATEGIA

*Ramiro LAUZIRIKA / Imanol ITURRIOZ / Luis LIZARRIBAR /  
Mikel SOBRINO / Idoia HERNANDORENA*

A ereduko irakasleak

## Sarrera

Gaia aukeratzeko orduan, pentsatu genuen *azalpenezko testu-generoa* lantzea eta horretarako betiko arloak utzi eta beste bat hartzea erabaki genuen, kasu honetan *zuhaitzak*, izan ere zuhaitza lantzerakoan inguruneari dagozkion edukiak lantzen direlako: kokapena, erliebea, ezaugarriak. Baita ere ohiko deskribapenetatik aldendu nahi genuen eta gai honek horretarako aukera ematen du: txango bat egin hostoak biltzera, ingurunea ezagutu, klima...

Normala den bezala hasiera batean zalantza batzuk sortu ziren, zenbat zuhaitz, zergatik batzuk bai eta besteak ez, ze irizpide erabili, etab. baina azkenean Nafarroako esanguratsuenak edo izango zirenak lantzea erabaki genuen.

Lan egiteko orduan saiatu ginen maiztasun batekin biltzen eta egun bakoitzean gauzak eginez aurrera jarraitzea, batzuk arlo teorikoa eta besteak praktikoa landuz baina erabakiak denen arteko adostasunaz hartuz.

Proiektu hau LHko bigarren ziklorako pentsaturik dago, eta bertan zuhaitzei buruzko azalpen-testua egiteko pausoak agertzen dira. Proiektu hau aurrera eramateko gehien bat entziklopedia eta internet erabili dugu informazio eta argazki desberdinak lortzeko.

## Azken xedea

- Denen artean norberaren herriko zuhaitzen fitxategia egin eta bakoitzak berea ahoz besteei adierazi.

## Helburuak

- Zuhaitzen izenak eta atalak ikasi.
- Atal bakoitzaren oinarrizko ezaugarriak ikasi.
- Zuhaitzen ezaugarriak ahoz zein idatziz adierazten ikasi.
- Fitxaren egitura eta formatua ikasi.

## Kontzeptuak

- Testua; ahozko eta idatzizko deskribapena.
- Zuhaitzen izenak: sagarrondo, intxaurrondo, gereziondo, udareondo, pikondo, olibondo, aranondo, gaztainondo, hurritz, makal, arte, pinu, haritz, gorosti, izei, pago.
- Fitxaren formatoa: izenburua, hosto mota, fruitua, bizilekua, nolakoa den.
- Bizilekua: mendiaren goi aldean, erdi aldean, lautadan, soroetan, erre-kasto gunea, herrian.
- Zuhaitzaren atalak: hostoa, enborra, azala, fruitua.
- Hostoaren ezaugarriak, irizpide desberdinak jarraituz:
  - Borobila, luzanga, gingilduna, azikularra edo orratza.
  - Ertz hortzduna, osoa edo arantzaduna.
  - Erorkorra, iraunkorra.
- Zuhaitzaren tamaina: txikia, ertaina, handia, zuhaixka, altua.
- Enborrharen ezaugarriak: mehea, lodia, motza, sendoa, lodia, zuzena, es-tua, fina.
- Azalaren ezaugarriak: leuna, zimurra, grisa, zuria, iluna.
- Fruituen izenak: sagarra, udarea, intxaurra, gaztaina, gerezia, pagotxa, hurra, pikua, oliba, arana, ezkurra, pinaburua, fruitu gorriak.

## Prozedurak

- Behaketaren bidez, zuhaitzen ezaugarriak identifikatzea, bereiztea eta adieraztea.
- Fitxaren atalak bereiztea eta hauen arabera deskribapena egin.
- Ezaugarri bakoitza bereiztea eta dagokion tokian idaztea edo unean esatea.
- Informazioa aurkitzea, aukeratzea eta sailkatzea.

### Jarrerak

- Zuhaitzekiko errespetua.
- Informazioa jasotzeko interesa eta jarrera baikorra.
- Besteen lanarekiko begirunea.

### Ebaluazio irizpideak

- Fitxaren atalak ulertzen ditu.
- Zuhaitzen fitxen atalak ongi betetzen ditu.
- Zuhaitzen ezaugarriak ikasi ditu.
- Zuhaitzaren deskribapena ahoz ongi egiten du.

#### Fitxa eredu **Sagarrondoa**

Izena:	Sagarrondoa
Fruitua:	Sagarra
Hostoa:	Borobila eta erorkorra
Tamaina:	Ertaina eta txikia

# GRAFFITIA

*Susana LASARTE / Cristina ERASO / Unai ALBIRA / Luis EL CID*  
A ereduko irakasleak

## Helburuak

A ereduko programazio ofizialean euskararekiko jarrera baikorra eta motibazioa aipatzen direla, ekintza bereziki motibagarria aurkitu nahiko genuke.

Graffiti oso erakargarria da. Hala ere, arte mota bat dela erakutsi nahi dugu.

## Azken ekintza

Ikastetxeko patioan graffiti egitea.



## Prozesua

- Aurrezagupena: argazkiak erakutsi eta galdetu non ikusi duten, zer den, haien iritziz artea den...
- Informazioa bilatu: non sortu zen, zer den... (enziklopediak, internet...) gurasoei galdetu zer iritzia duten...
- Kontrol zerrenda prozesua deskribatuz: pausoak zerrendatu eta ulertu.
- Letra motak ikasi eta bakoitzak bere izena edo ezizena marraztu.
- Iruñean aurkitzen diren graffitiak aztertu. Horretarako irakasleak egin ditu argazkiak eta CD formatoan ikastetxeko ordenagailuetan sartu ditu.
- Etxetik ekarritako informazioa aztertu.
- Graffitiaren istorioa ezagutu.
- Testuak landu.
- Bozetoa egin.
- Proba egin (behar diren segurtasun neurriak gordez).
- Graffiti burutu ikastetxeko patioan.

## Balorazioa

Esperientzia Mendillori III ikastetxean aplikatu da eta oso positiboa izan da. Patioaren zati bat erabili da eta urtez urte joan da beste zatiak betetzen, horrela garapenaren inpresioa izan ahalko da.



# LURRALDE EZBERDINETAKO JATEKO OHITURAK

*Koro ALEMAN / Blanca LLORENS / Amaia IRAZUSTA / Iratxe IZURA*

A ereduko irakasleak

## Azken xedea

Taldeka, diptiko batean (edo hormirudi batean) herri bateko jateko ohituren berri eman idatziz.

Gelako beste taldeetako ikaskideek ezagutu ditzaten; baita 3. DBHko beste klaseetakoek ere.

## Helburuak

- Herri baten kokapena azaltzen ikasi.
- Herri baten zenbait ezaugarri: ekoizten dituen produktuak, eguraldia, jateko ohiturak, bere ekonomian zein diren arlo nagusiak e.a., entziklopedietan, turismo aldizkarietan bilatzen eta adierazten ikasi.
- Errezeten atalak birpasatu.
- Errezetak idatzi: izenburua, zenbatentzat den, osagaiak eta kopuruak, eta platera egiteko burutu beharreko urratsak azaltzen ikasi.
- Jakien hiztegia euskaraz ikasi.

## Kontzeptuak

- Aurkibidea.
- Kokapena: ...ko iparraldean, ...ko hegoaldean...
- Erlatiboa: ...datorren platera, ...erretzen den bildotsa.

- Superlatiboa.
- Errezetak: instrukzio testua.
- Janarien hiztegia.
- Janari motak: barazkiak, itsaskiak, haragiak, fruituak...
- Neurriak.
- Maiztasuna adierazteko baliabideak.
- Denbora antolatzaileak.
- Aditzak: agintera, geroaldia, behar izan, ahal izan.

### Prozedurak

- Entziklopedietan eta turismo aldizkarietan toki bati buruzko informazioa bilatzea.
- Errezeten liburuak aztertzea.
- Errezetak irakurtzea eta idaztea.
- Errezeten izenburuak, zenbatentzat diren eta osagaiak identifikatzea.
- Plater bat prestatzeko urratsak zehaztea.

### Jarrerak

- Mediterranearen dietaren bertuteaz ohartzea.
- Janarieko osasun ohiturak ezagutzea.
- Herrialde desberdinetako jateko ohiturak ezagutzea eta errespetatzea.
- Beste ikaskideek aurkeztutako lana errespetatzea.

### Ebaluazio irizpideak

- Ikaslea gai da herri baten kokapena ongi adierazteko.
- Herri baten ezaugarri nagusiak adierazten ditu.
- Errezeten izenburua idazten du.
- Errezeta zenbatentzat den zehazten du.
- Osagaiak eta haien kopurua adierazten du.
- Platera nola prestatzen den idazten du.
- Sukaldaritza horren bertute eta gabeziak adierazten ditu.
- Proiektuan parte-hartze aktiboa izan du.

## Lurralde ezberdinetako jateko ohiturak

### 1. *Azken xedea*

Taldeka diptiko edo mural batean herri bateko kokapena egin eta jateko ohituren berri eman idatziz

Gelako beste ikaskideek, baita 3. DBHko beste klaseetakoek ere, ezagutu ditzaten.

### 2. *Egoeraren aurkezpena / Aurrezagupenak kanporatzen*

Egoeraren aurkezpenak, alde batetik, jateko ohitura ezberdinen interesa pizteko, hau da, motibatze, ikasteko beharra sortzeko eta bestetik, eredia aurkezteko balio izango du.

- Munduko mapa bat horman zintzilikatuz (eredua aurkeztutakoan Grezia mapan bila dezaten baita haiek toki bat aukeratzeko orduan ere mapan begira dezaten).
- Greziari buruzko aldizkariak ikusiz, non lurralde honetako toki ezagunenak, monumentu nagusienak, platerak, eguraldia, ea. agertzen diren.
- Greziako musika jarritz
- Grezian eginda edo Greziari buruzko iragarkiren bat ikusiz.
- Lurralde ezberdinetako janarien hizki zopa ariketaren bidez *Nongoa da plater bakoitza* izeneko ariketa.
- Ikasleek Greziako eta beste lurraldeetako plater ezberdinen izenak eta argazkiak irakurri eta ikusiko dituzte. Irakasleak erronka botako die: *Ezetz asmatu nongoak diren plater hauek!* Asmatutakoan irakasleak mapan kokatzeko eta haien mugak adierazteko ere eskatuko die. *Saia zaitetz irudi bakoitzari bere izena jartzen eta Jakingo al zenuke nongoak diren esaten?* ariketak.
- Greziari buruzko informazioa aterarazteko test moduko ariketa egingo dute.
- Ikus dezagun orain zer dakizun Greziari buruz. *Baietz gehienak asmatu!* ariketa.

Hasierako aurkezpenean, gaiarekiko interesa piztu ondoren, Greziari buruzko jateko ohituren eredia aurkeztuko dugu eta ikasleen aurrezagupenak ateratzeko erabiliko dugu.

Greziari buruz dakitena kanporatutakoan, *zer egingo dugun, zer ikasiko dugun* eta *zertarako* azalduko zaie.

Taldeka, aukeratutako herri batek dituen jateko ohiturei buruzko murala egingo dutela esango zaie. Ohitura horiek herriaren ezaugarriekin, hau da, ekoizten dituen produktuekin, eguraldiarekin... lotura handia dutela ikusteko, toki horren kokapena eta zenbait ezaugarri bilatu beharko dituztela esango diegu.

Halaber, jaki horiek nola prestatzen diren, hots, errezetak burutzeko urratsak zein diren eta adierazteko modua ikasiko dutela azalduko diegu.

Zertarako? Talde bakoitzak murala prestatuz eta beste taldekideek egingakoa ikusiz lurralde ezberdinetako jateko ohiturak ezagutu ditzaten eta baita herri horiei buruzko informazio gehiago ere izan ditzaten.

Gainera, ikastetxeko beste taldeetako ikasleekin muralak trukatzuz gero, haien lana ezagutzeko aukera izango dute eta haiekiko harremana handi daiteke.

### 3. *Ereduaren lanketa*

Gramatika edukiei dagokienez, argitu behar dugu guk prestatutako ereduaren agertzen diren zenbait egitura ikasleek menperatzen duten ala ez erabateko ziurtasunik ez dugunez, *aurrezagupenak kanporatzen* atala burutzerakoan nolabaiteko ebaluazioa egingo dugula guk aurreikusitakoaz gain beste hainbat egitura landu behar izanez gero, ariketa osagarrien bidez landu ahal izateko.

Landu edota birpasatzekoak:

- Osagaiak eta kopuruak birpasatzeko ariketak.
  - a) Ibaizabal argitaletxeko 2. DBH-ko liburutik ateratako ariketa, 73or.
    - kada atzizkiaren erabilera birgogoratu ondoren, irudietan ikusten dena adierazi behar dute idatziz neurriak adierazteko baliabideak erabiltzen dituztelarik.
  - b) “Sukaldeko errezeten jokoak”. Mintzamenerako jokoak. Elhuyar liburutik ateratakoa.
    - Ekintza mota: klase osoan osagarriei buruzko galderak egin.
    - Galderak/egiturak: Baduzu? / Ba al duzu?
    - ...egiteko / beharko nuke.
    - Zenbat. nahi / behar duzu?
    - ...egiteko / nahiko nuke.
    - Lexiko-arloa: janaria, pisuak, neurriak.
    - Oinarrizko hiztegia: arrautza, gurin, gatz, piper, esne, irin, gazta, azukre, txokolate, bainila, ur...
    - Prozedura: Klasea lau taldetan banatu behar dugu, talde bakoitzari errezeta bat eta bost osagaiko paper-zati bat emanaz.

- Joko honen xedea, talde bakoitzaren errezeta egiteko behar dituzten osagaiak aurkitzea da. Helburu hau lortzeko talde bakoitzak tokatu zaion errezeta irakurri eta behar dituen osagaiak eta hauen kopuruak azpimarratuko ditu.
- Talde bakoitzetik ikasle bat atera behar da osagai baten bila, aldean daramanaren truke. Osagai guztiak lortzen dituen lehen taldea txapeldun izango da.
- Hiztegi berezia: nahastu, erantsi, gehitu, irabiatu, banandu, urtu, zuringo, gorringo, kazola, gainerre, gratinatu, isuri, eragin, ore, egosi...
- Plateren prestaketa landu aurretik, errezetetan erabilienak diren aditzak eta lexikoa ezagutarazteko Ibaizabal 2. liburutik ateratako fotokopia (75or.) banatuko diegu. Jarduera ekintza batzuk (frijitu, egosi, nahastu, txikitu...) dagokien marrazkiekin lotzean datza.
- Prozesua adierazteko erabiltzen diren aditzak eta denbora antolatzaileak lantzeko Ibaizabal 2 liburutik hartutako ariketa (74 or.) probestuko dugu. Mikrouhin labearen funtzionamendua irudikatzen duten marrazkien azpian prozesua adierazten duten esaldiak idatzi behar dituzte. Ondoren, errezeta azaltzeko, tostada prestatzeko... prozesuak idatziko dituzte orrian agertzen diren ekintzak ordenatutakoan.
- Errezetak nola idazten diren lantzeko Murgil argitaletxeko testuliburutik ateratako 4 ariketa erabiliko ditugu (8, 9, 10, eta 11).
- Talde osoan eta ahoz gure ereduko hiru errezetak irakurri eta landuko ditugu. Errezetak egiterakoan erabiltzen diren hizkuntz formak, hau da, aditzak: behar izan, geroaldia eta agintera eta denbora antolatzailei erreparatuko diegu.

#### 4. Ekoizpena

Aurrerago esan dugun bezala proiektuak taldeka egingo dira; lau ikaslek osaturiko talde bakoitzak murala egingo du kartulina batean. Ereduan bezala, aurretik landuriko atal guztiak agertu behar dira, horietako batzuk marrazkiez apaindurik.



Ondorioak

## LAN TALDEEN GIDOIAK

Jardunaldietan parte hartu zuten 150 bat irakasleek 15 talde osatu zuten. Talde horiek, hizkuntza eskualdea, hezkuntza maila eta sareak kontutan hartuta osatu ziren. Bi bilkura egin zuten, bakoitzean, nagusiki, eztabaidatu ziren puntuak hurrengo gidoi hauen arabera izan zinen:

### 1. *Bilkura*: metodologiari buruzko iritziak eta ekarpenak

Maiatzaren 8an, 12:30tik 14:00ra.

1. Zertan oinarritzen zara programazioa egiteko? (eduki gramatikaletan, hizkuntza funtzioetan, komunikazio egoeretan...).
2. Ulermena eta ekoizpena kontuan izaten dira? Zeini ematen diogu garrantzia? Maila guztietan garrantzi berdina dute?
3. Ahozko lanketa programatu egiten duzu? Nola egiten da ahozkoaren lanketa?
  - Aldez aurretik programatua da, beharren arabera...
  - Nola egiten da: galdera-erantzunen bidez, egoera errepikatzen...
4. Zein da protagonista gure klase orduetan, ikaslea ala irakaslea? Zein paper du ikasleak, aktiboa ala jasotzailea? Zein taldekatze mota erabiltzen da gehien? Ikasleak aukera du sortzeko, ala gidatua da bere lana?
5. Jarduerak egiteko, zein material mota erabiltzen duzu? Sortutako materialik erabiltzen duzu? Zer lantzeko? Beste hizkuntzetako materialak erabiltzen dituzu, adibidez ingelesazkoa? Zergatik?

6. Ezagutzen al zenuten A ereduan irakasteko beste metodologiaren bat? Ezagutzen al zenuen Biotzak eta Jokinek azaldu duten metodologia? Diferentziarik ikusten al duzu aurreko proposamenekin?
  - Ikasleen paperean?
  - Irakaslearen paperean?
  - Gelaren antolaketan?
7. Zeintzuk dira ikusten dituzun alde baikorrak eta errenkak metodologia hori erabiltzeko?

2. *Bilkura*: prestakuntza, ebaluazioa, A ereduari egin nahi zaizkion ekarpenak

Maiatzaren 9an, 11:30tik 13:00ra.

1. Euskara irakaskuntzaren ezaugarriak zure hezkuntza mailan: ikasleen ezaugarriak, bereizgarriak (adb: haur hezkuntzan ahozotasuna, lehen hezkuntzan koordinazioa, bigarren hezkuntzan selektibitatea...), euskara klasearen estruktura, materialak, irakasleen arteko koordinazioa eta abar.
2. Hezkuntza mailen arteko koordinazioa: bakoitzak izan behar duen helburua.
3. Hemendik aurrera curriculum eta metodologiaren alorretan egin behar duguna.
4. Ebaluazioa.
5. Formazioa. Hizkuntza hobekuntza eta hobekuntza didaktikoa. Egiten dena baloratu eta egin nahiko genukeena proposatu.
6. Bestelako iritziak eta ekarpenak.



## A Ereduko Jardunaldien Ebaluaketa

Hauxe da Jardunaldien ebaluaketa egiteko erabili zen fitxa:

Atalak	- iritzia +					Oharrak
	1	3	5	7	9	
Antolakuntza						
Baliabideak						
Erakusketa						
Argitaletxeen materialak						
<i>Hitzaldiak:</i> *Biotza Piko						
Jokin Larrañaga						
Nuheokoa						
<i>Info aplik.:</i> Josu Jimenez						
Sagrario Crespo						
Proiektuak						
Lan taldeetako ekarpenak						
Ondorioak						

\* Erantzuna aukeratzeko **x** bat egin dagokion laukitxoan. Adb.:

1	3	5	7	9
		<b>x</b>		

Erdia/Nahiko

Azkenik, zein iritzi edo ekarpen egin nahi duzu:

.....

.....

.....

.....

.....

*Mila esker*

## JARDUNALDIEN ONDORIOAK

Irakasleen bilkurak egin ondoren, osatutako 15 taldeen txostenak bildu ziren, eta ondoko hauek izan ziren, orokorrean, talde horiek egindako ekarpenak:

### 1. *A ereduaren baldintza orokorrei buruz*

Irakasleriaren egonkortasun falta. Behin-behineko irakasle kopurua altua da, eta horrek ikasturte batetik bestera aldaketa handiak eragiten ditu.

Ikasle taldeak txikiagoak izatea komenigarria da, trataera pertsonalizatua goa lortze aldera.

### 2. *Curriculum*

Curriculum berria sortzeko eta programazio orokorra A ereduko euskara irakasgairako finkatzeko beharra.

Gutxienezko edukiak edo ebaluaketa sistema finkatu, ikasleen jarraipena errazteko eta haien ikaskuntza ibilbidea hezkuntza maila ezberdinetan ikusi ahal izateko.

### 3. *Materialak*

Irakasle zein ikasleendako testuliburua egin.

Esperientzien trukaketa sistema sortu, irakasleen lanez guztiok baliatuz eta beste ikastetxeetan egiten denaren berri izan, bakoitzaren lanerako erreferentzia izan dadila.

#### 4. *Ekintza osagarriak*

Ekintza osagarriak (emanaldiak, egonaldiak, udalekuak...) oso beharrezkotzat jotzen dira, zeren eta ikasleek, bestela, irakasle bakarreko erregistroa baitute. Beraz, horrelako ekintzak ziurtatzeko behar diren baliabideak jarri behar dira.

#### 5. *Koordinazioa*

Hezkuntza maila ezberdinen arteko irakaskuntza koordinatzeko beharra.

Hezkuntza lana bideratzen duen koordinatzaile edo koordinazio taldea izatea.

Aholkulari baten laguntza izatea, ikastetxeetan egindako materiala eta proiektuak baloratzeko eta orientabide didaktikoak emateko.

Lan taldeak sustatzea.

#### 6. *Hobekuntza*

Jardunaldietan agertu diren aspektu berrietan sakontze aldera, hobekuntza ikastaroak egitea: proiektuen bidezko taldeak, informatika aplikazioak...

Jardunaldiek jarraipena izan dezaten. Hemendik denbora jakin batera (2 urtera...) jardunaldiak egitea, horretarako eduki nahikoa badela ikusten denean.

Eranskinak

## ERAKUSKETA

Jardunaldiak iraun bitartean erakusketa bat egon zen. Hurrengo erakundeen materialak egon ziren ikusgai horretan:

### Euskara Zerbitzua

- Curriculumak: lehen eta Bigaren Hezkuntzako curriculumak.
- Programak: Erabil eta Ekintza Osagarrien Agindu Forala.
- Hobekuntza: Hobekuntza plana eta EGA.
- Kanpaldiak: Arantzako egonaldiak eta udalekuak.
- Lehiaketak. Lenarriak, antzerkia, deklamazioa,...
- Materialak: Ekoiztu edo/eta erositakoa (Kalean gora 1 eta 2, Urtxin-  
txako Jokuak 1 eta 2, Herri kirolen afitxak, liburuak, CD-romak,...)

### Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala (NUHEO):

#### ARI GARA metodoa:

- Irakasleen liburuak (1, 2, 3 eta 4).
- Ikasleen liburuak (1, 2, 3 eta 4).
- Material osagarria (cd, partxisa...).

## Iruñeko Irakasleendako Laguntza Zentroa (ILZ-CAP)

Azken urteotako lan talde eta mintegietan egindako proiektuak.

### Ikastetxeak

- |                                      |  |
|--------------------------------------|--|
| – La Compasión (Iruña):              | Ikastetxearen posterra.<br>Ikastetxearen programazioa. |
| – San Jorge I.P. (Iruña):            | Hiztegiaren laminak eta jokoak.                        |
| – Ameskoak I.P. (Zudaire):           | Jokoak.  |
| – Ama Zuria I.P. (Uharte):           | Programaketa eta material osagarria.                   |
| – Marqués R. Defensa I.P. (Tafalla): | Programazioak.   |
| – San José (Tafalla):                | Material osagarriak.                                   |
| – Jesusen Bihotza (Altsasu):         | Ebaluaketa.  |

Bideo eta softwareko etxe komertzialen material batzuk jarri ziren erakusgai

### Bideoa

- Xirula-Mirula: *Txiki-txiki-txikia; Ran Roberran; Musikarien txokoa; Baddok hamalau; Musikarien merkatu txikia.*
- LC Produkzioak: *Untxi txikia; Basoko Etxolan; Olatz eta Unai eskolan.*
- Hik hasi: *Zatoz jolastera.*
- Ihardun Multimedia: *Pitiren abenturak.*
- Lavender Films: *Euskara bidean.*

### Softwarea

- *Johanes Bargotako Aztia.* DBHrako. Nafarroako Gobernua 2001.
- *Euskal Jolasen Bilduma I eta II.* Urtxintxa 2001/2002.
- *Irakurri eta idatzi.* Lehen Hezkuntza. Edicinco 1999.
- *Animaliak.* Lehen Hezkuntza-DBH. Elhuyar 1998.
- *Piratekin matematikaren munduan.* Lehen Hezkuntza. Elhuyar 2000.
- *The Beatles.* DBH-Batxilergoa. Rock&Orff 2001.
- *Ttantto.* Haur Hezkuntza. Ikastolen Elkartea 2000.

- *Xango*. Haur Hezkuntza. Ikastolen Elkartea 2002.
- *Untxi txikiarekin jolasten*. Haur eta Lehen Hezkuntza. LC Produktzioak 2000.
- *Jolasteko ipuinak*. Haur eta Lehen Hezkuntza. LC Produktzioak 2001.
- *Txirri, Mirri eta Txiribiton*. Haur eta Lehen Hezkuntza. Ikuskin 1998.
- *Mixi eta bere lagunak*. Lehen Hezkuntza. Ikastolen Elkartea 2002.
- *Piratekin hizkuntzaren munduan*. Lehen hezkuntza-DBH. Elhuyar 1998.
- *Beleko*. Lehen Hezkuntza-DBH. Ikastolen Elkartea 2002.
- *Matematika Tailerra*. Lehen Hezkuntza-DBH. Zuhar 2002.
- *Kantuketan*. Lehen Hezkuntza-DBH-Batxilergoa. Elhuyar 2001.
- *Irakaslea*. DBH-Batxilergoa. KB Taldea 1999.

### Argitaletxeak

Jardunaldiak iraun bitartean hurrengo argitaletexe hauek izan zituzten beren materiala ikusgai:

- Anaya-Haritz.
- Erein.
- Ibaizabal.
- Santillana-Zubia.

# JARDUNALDIEN PROGRAMA

## **Maiatzaren 8a**

### Hitzaldiak

*A ereduaren bilakaera eta ezaugarriak*

Eduardo Aldasoro Lezea. [Euskara Zerbitzuko teknikaria]

*Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren programa eta metodologia*

Biotza Piko Gabantxo. [Gasteizko Berritzeguneko aholkularia]

*Bigarren Hezkuntzako programazioa eta metodologia*

Jokin Larrañaga Larrañaga. [Bigarren Hezkuntzako Institutuko irakaslea]

*Lehenengo lan saioa: metodologiari buruzko iritziak eta ekarpenak.*

### Komunikazioak

*Eta bakoitzeko esperientziak: proiektu eta tailerrak*

1. Zuhaitzen fitxategia.
2. Jantziak.
3. Antzinako tresneria.
4. Graffitiak.
5. Lurralde ezberdinetako jateko ohiturak.



**Maiatzaren 9a**

## Hitzaldiak

*NUHEOko programazioa, materialak eta emaitzak*

Garbiñe Urreizti Lezertua / Pello Mateos Yeste

[Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialeko irakasleak]

*A eredurako informatika aplikazioak*

Josu Jiménez Maia. [Euskara Zerbitzuko aholkularia]

*Helduen irakaskuntzako materialen aplikazioak A ereduan*

Sagrario Crespo Zulet. [Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko aholkularia]

*Bigarren lan saioa: prestakuntza, ebaluazioa, iritziak eta ekarpenak*

Aurreko egunean osatutako taldeetan

*Ondorioak*

## JARDUNALDIEN BALORAZIOA

Jardunaldien amaieran irakasleek bete egin zuten hurrengo orrialdean agertzen den ebaluaketa fitxa.

Irakasleek emandako iritziak jaso egin ditugu hurrengo kuadro:

	<i>Batezbestekoa</i>	<i>Desbiderapen tipikoa</i>
Antolakuntza	7,42	1,36
Baliabideak	6,85	1,51
Erakusketa	6,55	1,49
Argialetxeena	5,78	1,73
HH-LH programa	6,65	1,95
BHko programa	7,80	1,19
Nuhekoa	6,69	1,67
Informatika aplik. .	6,87	1,75
Helduen irakask.	7,24	1,59
Lan taldeak	6,89	1,51
Ondorioak	7,09	1,69